

# Arrazate

1998ko  
Apirilak 3  
402. zenb.

R E S S

## Minaren gainean zauria


Ugaltzen ari dira  
istripuen ondorengo  
erreklamazioak

**GURE ENPRESAK:** JJK DISEINU TALDEA • **IKUSPEGIA:** AITOR OROBENGOA  
**KIROLAK:** NESTOR KORTABARRIA • **KULTURA:** 7 ESKALE

# ARDOARI buruzko ikastaro laburra

Ardoa nondik datorren, ardo desberdinak, nola egiten diren, dastapena, ardoa eta janariak, eta abar.

Egunero izango da ardoa dastatzeko aukera.



### Noiz:

apirilaren 20tik maiatzaren 13ra  
Astelehen eta asteazkenetan  
Arratsaldeko 7:30etatik 9:30etara

### Izena emateko azken eguna:

apirilak 16  
AEDn edo 77 12 28 telefonora deituta

### Prezioa:

6.000 pta.  
Bazkideek, ikasleek  
eta langabetuek 5.000 pta.

### Antolatzailea:




# PARDO estetika zentrua

### ESKAINTZA BEREZIAK:

- SOLARIUMA DUTXAREKIN 10 SAIO + 1 DOHAINIK = 8.000 PTA.
- GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK: LEHEN 3.700  
ORAIN 2.700 PTA.



LEHEN



ORAIN

## MAKILAJE IRAUNKORRA

- Makilaje iraunkorra: hiru urterako konponbidea ■
- Ezpainen akatsen zuzenketa (txikitu, handitu...) ■
- Ahaztu zaitez ezpainak egunero margotu beharraz lanarekin! ■

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE

# Korearrak eta Billy Brandt

**G**arai batean Frantziak munduan zehar izandako koloniak direla eta, hango unibertsitatea eta ingeniari-tza eskoletako matrikulen %5 bere menpean bizi izandako herrietako gazteek osatzen dute. Hori horrela, erraz uler daitekeenez, Frantziako unibertsitateetan Aljeria, Txad, Libano, Madagaskar, Senegal... eta inon diren herrietako ikasleak aurki daitezke.

Orain hamabost urte Mondragon Eskola Politeknikoak hartara bidalita, aipatutako giro nabar horretan murgildu ginen bat-batean. Zer esanik ez, han igaro genuen egonaldia esker eta gure koadrilan genuen azal kolore ezberdinetako jendearen eraginez, azkenean, hain esku genituen arrazak eta kulturak guztiz arrunt eta natural jotzera iritsi ginen.

Kolorez jantzitako



Aitor Orobengoa

giro hartan talde berezi batez konturatu nintzen. Gazte korearrekin osatzen zuten eta, nire begietara, talde hark bazuen halako bereizgarriak. Lehenik eta behin, euren kopurua erabat nabarmena edo handia iruditu zitzaidan, Korearen eta Frantziaren arteko urruntasuna kontuan hartuta, behintzat. Bestetik, berriz, korear ikasle talde hura oso bizkorra zen eta beste inork baino ikastordu

luzeagoak egiten zituen. Gainera, Korea munduko beste puntan dagoenez, ikasle korearrek sarritan bost edo sei urte igaroten zuten etxera bueltatu aurretik.

Garai hartan, 1982a izango zen, Hego Korearen indar ekonomikoa artean ezezaguna zen. Hala ere, nire gogoan halako bonbilla gorria piztu zitzaidan, batez ere gazte korear batek zera aipatu zidanean, alegia, Frantziaren zegoen ikasle kopurua txikia zela, Estatu Batuetan, Kanadan eta Ale-

manian zeuden taldeekin alderatuz gero.

Geroztik, Sansum, Hyundai, Daewoo, Goldstar eta halakoen izenak guztiz indartsu eta ezagunak bilakatu diren honetan, hobeto ulertu izan dut hainbeste urtetan etxetik kanpora egon izan zen unibertsitario kopuru handi haren eragina. Pentsatzen dut burutazio hau ez dela izan niri dagokidan asmakizun hutsa: hor dago gaur egungo ekonomia. Hots, Korea mikroprozesagailuen alorrean erakutsi izan duen bizkortasunak garai batean Estatu Batuetan ikasi eta Motorola, IBM, Intel eta antzerako enpresetan ibilitako gazteengan omen ditu sustraiak.

Estatuek eta orohar gizarteak jardura ekonomikoa zuzpertz eta langune berriak sortu nahian erakusten duten gaitasun ezak ikasle korear hura dakarkit gogora sarri. Eta, azkenik, unibertsitario haren hariari jarraituz, Billy Brandt-ek emandako aholku famatu batera iristen naiz: inork Alemaniako arrakasta ekonomikoaren oinarri nagusia kopiatu nahi badu, jakin dezala soluzioa dela eskolaurrea eta unibertsitatea aukera arrunt eta orokorra bihurtzea.

**“Orain hobeto ulertzen dut unibertsitario talde haren eragina”**

*“Gaurko lana atzokoa baino hobea eta biharkoa baino eskasagoa izan dadila. Hori da koopeatibetan ikasi nuen zer bait”*

**Kike Gomez de Segura**

# 15,5

**milioi pezeta**

15,5 milioi pta ordaindu ditu Arrasateko Udalak Zeharkale Estaliko etxebizitza bat erosteko. Helburua da, udaletxe ostean dauden etxebizitza guztiak erostea. Hori lortutakoan etxea bota egingo da, udal-etxea egin zenean zegoen moduan uzteko, bera bakarrik. Horretarako, ordea, urteak beharko dira.

**Retegik ez MUko errektoretzari**

Antza denez, Xabier Retegi gaur egun Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak kargua uzteko asmoa du urriko hauteskunde ostean. Zer egingo ote duen inork ez daki. Jakin izan dugunez, iaz Mondragon Unibertsitateko errektore izateko proposamena jaso zuen zenbait jenderen partetik. Berak, berriz, ezetz. Xabier Retegi Eskola Politeknikoko zuzendaria izan zen hainbat urtez.



**ARRASATE KOMUNIKABIDEAK**

**ARRASATE PRESS**

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 05 15). **Administrazioa:** Ikasle Albulu (Tel.: 79 02 26). **Disenatzaileak:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Arriola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Saliz, Iker Barandiarán, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 29). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legi-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeko konzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Auzindaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### Ostirala 3

- 10ak arte: Maalako Ruiz
- Gauzez: Camacho, Bergara.

### Larunbata 4

- 10ak arte: Morales, San Andres..
- Gauzez: Puy, Bergara.

### Igandea 5

- 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Gauzez: Puy, Bergara.

### Astelehena 6

- 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Gauzez: Guallar, Bergara.

### Asteartea 7

- 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Gauzez: Estella, Bergara.

### Asteazkena 8

- 10ak arte: Irizar, Erguin.
- Gauzez: Mozos, Bergara.

### Osteguna 9

- 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Gauzez: Camacho, Bergara.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritxteak

|                                    |          |
|------------------------------------|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospit. . . . . | 79 53 00 |
| Igualatorria . . . . .             | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea            |          |
| (gizonak) . . . . .                | 79 39 00 |
| (emakumeak) . . . . .              | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua . . . . . | 79 90 11 |

### Gurutze Gorria

|                   |          |
|-------------------|----------|
| Bergara . . . . . | 76 55 76 |
|-------------------|----------|

### DYA

|                    |          |
|--------------------|----------|
| Antzuola . . . . . | 78 71 57 |
|--------------------|----------|

### Anbulatorioak

|                                  |          |
|----------------------------------|----------|
| Arrasate (Larrialdiaz) . . . . . | 79 13 57 |
| • Txanda hartzeko, medikuntza    |          |
| orokorra eta pediatría . . . . . | 77 03 46 |
| • Espezialitateak . . . . .      | 77 05 78 |
|                                  | 77 12 64 |
| Oñati . . . . .                  | 78 08 52 |
| Eskoriatza . . . . .             | 79 98 58 |
| Arexabaleta . . . . .            | 79 74 58 |
| Aramaio . . . . . (945)          | 45 51 16 |

### Anbulantziak

|                                    |          |
|------------------------------------|----------|
| Gipuzkoako ambulanziazki . . . . . | 45 87 44 |
|------------------------------------|----------|

### Udaltzaingoa

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| Oñati . . . . .       | 78 04 11 |
| Bergara . . . . .     | 76 14 69 |
| Arrasate . . . . .    | 79 14 39 |
| Arexabaleta . . . . . | 79 10 52 |
| Eskoriatza . . . . .  | 088      |

### Ertzaintza

|                    |          |
|--------------------|----------|
| Arrasate . . . . . | 79 71 99 |
|--------------------|----------|

### Suhiltzaileak

|  |          |
|--|----------|
| Udal taldea . . . . .                    | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua . . . . . | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . .    | 088      |

### Matxurak

|                                  |              |
|----------------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) . . . . .  | 79 09 00     |
| Argindarra (Iberduero) . . . . . | 12 01 62     |
| Gasa . . . . .                   | 900 40 05 23 |
|                                  | 79 78 44     |
|                                  | 79 76 78     |

### Garraioak

|                  |              |
|------------------|--------------|
| Taxiak . . . . . | 79 12 22     |
| PESA . . . . .   | 902 10 12 10 |

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

|                                     |          |
|-------------------------------------|----------|
| Iturbide Egoitza . . . . .          | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza . . . . . | 79 81 57 |

### Kontsumitzailearentzako informazioa

|                     |          |
|---------------------|----------|
| KIUB-OMIC . . . . . | 79 51 55 |
|---------------------|----------|

### Monterron liburutegia

|                     |          |
|---------------------|----------|
| Monterron . . . . . | 77 01 05 |
|---------------------|----------|

### Irratia

|                            |          |
|----------------------------|----------|
| Arrasate Irratia . . . . . | 79 58 77 |
|----------------------------|----------|

## 58KO SOLDADUGAIK

Zuzendari jauna: Eskertuko dizut idazki hau zuk hain ongi zuzentzen duzun aldizkarian sartzea, ahal dela 58ko kintoek martxoaren 28an egingo duten bazkariaren berri ematen duen zenbaki berean.

Lerro hauek gauzak argitzeko eta inolako eztabaidarik sortzeko asmorik barik idatzi ditut.

1997ko martxoaren 21eko aldizkarian, 356. zenbakikoan, 16. orrialdean 58ko soldadugaiei ateratako argazkiaren oinean galdera hauek agertu ziren: "non daude 37an jaiotako emakumeak?" eta "37an ez zen emakumerik jaiotako ala?".

1997ko abenduaren 19ko aldizkarian, 389. zenbakikoan, 23. orrialdean 1937an jaiotako hainbat emakumeri ateratako argazkiaren oinean esaten zen 50 urte bete zituzte-

nean beren adineko gizonen ez zutela nahi izan bazkaria elkarrekin egin eta, hori zela eta, 60 urte betetzean emakumeen arteko bazkaria egitea erabaki zutela, gizonik barik.

356. zenbakia zuen aldizkariako galderari erantzunez, zera esan nahi dut: jakina 1937an jaiotako gerora gazte lerdinak eta urteen joanean emakume zoragarriak eta ederrak bihurtu ziren neskatilak. Bai, horixe. Zergatik ez ziren argazkian agertzen? 1957ko urtarrileko igande hartan herriko plazan soldadugai bihurtzeko nahitazkoa genuen neurketa egin ostean atera genuen argazkian ere agertzen ez zirelako.

389. zenbakikoari erantzunez, esan behar dut hiztegiak dioen legez, kintoa, besteak beste, soldadugaia dela eta emakumeak ez zirela soldadutzara joaten. Ez da nahastu behar urte berean jaiota-

koekin, zeren eta soldadugai guztiak ez baitira urte berekoak: boluntarioak gazteagoak izaten ziren eta baziren zaharragoak ere, soldadutza atzeratu egin zutelako. 58ko soldadugaik leialak izan gara —eta izaten segitu nahi dugu— historiarekin eta hiztegiarekin. Horregatik, aurretzean ere kintoen bazkaria gizonok bakarrik egingo dugu.

Goian esandakoak ez du kentzen halako batean bitariko batzorde bat sortu eta 1937an jaiotako bazkaria egitea, nahiz eta argazkian ez agertu 58ko soldadugai guztiak, batzuk urte hartakoak ez direlako eta beste batzuek hala erabaki leza-ketelako.

Agur bero bat 58ko soldadugaiei eta 1937an jaiotakoiei.

J. R.

NAN: 15291163

## Aldaketak Arrasate Pressen

Aldizkariari gainbegiratu eman badiozu, konturatu-ko zinen honez gero aldaketak datozela *Arrasate Pressen*. Sail berriak sortu ditugu, beste batzuk kendu, zenbait eduki moldatu, laburtu edo luzatu. Zergatik hau guztia?

• Arrasateko errealitatearekin lotura handiagoa eman nahi izan diogu *Arrasate Pressi*. Bere historian zehar, enpresak eta ekonomiak ez dute leku finko-

rik izan aldizkarian, nahiz eta enpresa ekimena oso garrantzitsua den inguru honetan. Horregatik bi orrialde sortu ditugu, herriko enpresen berri eta ekonomia-aren gorabeheren berri emango dutenak.

• Irudi bidezko informazioa gehiago erabiliko dugu aurrerantzean.

• Aldizkariaren zentzu praktikoa areagotu nahi izan dugu: trafikoa, eguraldia, euroa, interes tipo-

ak eta arrasatear askori interesatzen zaion era horretako informazioa sartuko dugu aurrerantzean.

• Idazteko estiloa sortu nahi dugu: labor eta argi idatziz, euskara onean, denentzat eredu garri.

Aldaketa hauek guztiak *Arrasate Presse* gauegun duen diseinua errespetatuz eta garatuz egin dira. Izan ere, Goio Aranek berak gauzatu ditu gure proposamenak aldizkaria utzi aurretik.

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**

**79 42 22**

# Zer iritzi duzu Titanic-en inguruko modari buruz?

*Aurretik hiru aste egin eta gero, berriro ekarri dute Titanic filma Arrasatera*



**Estefania Izagirre**  
(27 urte)  
Langilea

Orain puri-puritan dagoen filma da, eta zerbait boladan dagoenean hor egoten da, jendea aspertu arte.



**Jon Otxoa**  
(36 urte)  
Langilea

Itzela izan da. Aurrekontu handiko filma, eta izar garrantzitsuekin egina, baina ez da beste munduko ezer. Ez zitzaidan gehiegi gustatu.



**Ainhoa Vitoria**  
(10 urte)  
Ikaslea

Filma gustatu zitzaidan, baina Leonardo Di Caprio ez zait gustatzen. Nik ez nuen negarrik egin. Ez nuke berriro ikusiko.




**Idoia Goikoetxea**  
(29 urte)  
Irakaslea

Nik uste dut Titanic mania badagoela. Ni gaur joango naiz ikustera. Horrenbeste entzun ondoren, ikusi egin behar.



**Julio Ibarluzea**  
(74 urte)  
Jubilatua

Titanic itsasontzia ni umea nintzela hondoratu zen, guk istorio horri buruz asko entzun genuen. Filmaren inguruan ez dut ezer entzun.



**Aitzol Lasaga**  
(8 urte)  
Ikaslea

Niri filma oso gustatu zitzaidan. Politena da itsasuntzia ondoratzen denean. Berriz ikustera joan behar naiz.



**Susana Gomez**  
(21 urte)  
Langilea

Filmik politena izan da. Nik negar asko egin nuen. Bideoan azaltzen denean, berriz ikusiko dut. Ikaragarri gustatu zitzaidan.



**Eneko Urrizalki**  
(26 urte)  
Langilea

Ez da beste munduko filma. Moda asko dago bere inguruan. Filma saldu nahi izan dute, eta lortu dute. Nik ez nuke berriz ikusiko.

**ORTO + LAGUN**

O R T O P E D I A

Ez badakizu zer behar duzun  
etorri galdetzeraz!  
Guk lagunduko dizugu

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

*Spek*  
Denda



Iturriotz, 19  
(Herriko plaza) ARRASATE

## Arrasate

### LANAK

#### SAN FRANTZISKON

Biribila egiten ari dira. Aste Santu inguruan bukatuko dute.

#### KONTZEZIÑO AUZOAN


Kolektorea eta urbanizazio lanak. Luze joko du.

#### UDALA PLAZAN

Biribila berrizten. Oinarria konpondu eta urak batzeko. Luze joko du.

#### TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira. Luze joko du.



**Biztanleak: 24.571**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 3**



**LARUNBATA 4**



**IGANDEA 5**

Zeru lainotsuak izango dira nagusi. Tartean zaparradak izan daitezke, batez ere barnealdean.

Tartekardi eta goi mailako lainoak, zaparradak ekarriko dituztenak. Tenperaturak berdin edo hotzera joz.

Zeru lainotsuak eta euri zaparradak. Haizeak Mendebaldetik joko du.

## Ilargia



**ilgora**

Apirilaren 3tik 11ra arte ilgora izango da.

## Mezak

### San Frantzisko

(Frantziskotarren elizan Parrokia berri arte)

#### Larunbatean

09:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (euskaraz)  
 10:00 (euskaraz)  
 11:00 meza nagusia (Erramu bedeinkapena eta prozesioa egingo da.)  
 12:30 (erdaraz)  
 19:00 (erdaraz)

### Uribarri

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

11:30 (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)

### San Andres

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean

10:00 (erdaraz)  
 11:00 (euskaraz)  
 12:00 (erdaraz)  
 13:00 (erdaraz)

### Santa Teresa

#### Larunbatean


19:00 (elebiduna)

#### Igandean

10:30 (erdaraz)  
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)

## Urkuluko uraren maila

**%86,7**



## Distantziak

| Arrasate |        |            |       |         |          |         |        |        |       |  |
|----------|--------|------------|-------|---------|----------|---------|--------|--------|-------|--|
| 121      | Baiona |            |       |         |          |         |        |        |       |  |
| 690      | 579    | Bartzelona |       |         |          |         |        |        |       |  |
| 57       | 170    | 620        | Bilbo |         |          |         |        |        |       |  |
| 1.159    | 1.038  | 2.883      | 1.207 | Brusela |          |         |        |        |       |  |
| 72       | 50     | 529        | 119   | 1.088   | Donostia |         |        |        |       |  |
| 40       | 180    | 530        | 66    | 1.206   | 118      | Gasteiz |        |        |       |  |
| 107      | 120    | 437        | 159   | 1.180   | 92       | 93      | Iruñea |        |       |  |
| 391      | 519    | 621        | 395   | 1.556   | 469      | 351     | 407    | Madrid |       |  |
| 864      | 743    | 1.113      | 911   | 296     | 792      | 910     | 884    | 1.260  | Paris |  |



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

**VOLVO**

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI MOTORS

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 71 20 02 / Faxe: 79 65 65



**LORAMENDI**

UDABERRIAZ JANTZI!



3

ostirala

■ ZINEA

*Secretos del corazon.* Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ BIDEO EMANALDIA  
AL ANDALUS ELKARTEAN

Gaia: *Aste Santuak: Tradizioa ala erlijioa?* Al Andalus elkartearen liburutegian, gaueko 22:30etan.

4

larunbata

■ ZINEA

*Anastasia.* Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan. *Grandes esperanzas*, arratsaldeko 19:30etan eta 22:00etan.

■ IGERILEKUA ITXITA

Musakolako igerilekua itxita egongo da, igeriketa txapelketa jokatu behar delako.

■ DIA DO GALIZA

Goizean kalejira Musakolatik Erdiko kaleraino. San Andres elizan meza, eguerdiko 12:30etan. Ondoren, bazkaria eta *Los Galaicos* taldearen emanaldia. *Mar Azul* taldearekin dantzaldia, gauean.

■ ARRASATE MUSIKALEN  
BANDA EMANALDIA

Piano eta Banda emanaldia eskainiko da Amaia antzokian, arratsaldeko 19:30etan. Sarrera dohainik. Arrasate Musikalek antolatu du.

■ SAETA JAIALDIA

II. Saeta jaialdia Al Andalus elkartearen, gaueko 23:15etan.

■ ERRAMU LARUNBATE-  
KO FERIA BERGARAN

Feria goizeko 09:30etan zabalduko da. Txorimaloak eguerdiko 12:30etan. Gaudu lehiaketa eta erakusketa 13:00etan. Idi probak, arratsaldeko 17:30etan. Bertsolari jaialdia gaueko 22:15etan. Partehartzaileak: Euskitze, Amuriza, Iturriaga, Sarasua, Irazu eta Mendiluze. Gai jartzaila: Joserra Gartzia.

5

igandea

■ ZINEA

*Anastasia.* Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan. *Grandes esperanzas.* Arratsaldeko 19:30etan eta 22:00etan.

■ DIA DO GALIZA

Galiziako dantzak, abestiak eta vermut-dantzak, goizean zehar. Musika eta dantzan jaialdia, arratsaldean.

■ KANTATA  
98KO JAIALDIA

San Viator Txiki eta Gokobalu Txiki abesbatzek, Txikitxu dantza taldeak eta Arrasate Musikaleko Gazte Orkestrak parte hartuko dute. Jaialdia Amaia antzokian izango da, arratsaldeko 18:00etan.

■ TXAKUR LEREN  
V. LASTERKETA

Txakur Leren V. lasterketa jokatuko da Bergarako Gortan, goizeko 11:00etan. Era guztietako txakurrak eta lerak. Jendetza izugarria espero da.

**Lore**

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50



PEUGEOT

Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**ITSASKI**

ARRAINDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94



# 6 astelehena

■ ZINEA

*Grandes esperanzas.* Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ ARTE TOPAKETAK  
HARRESIN

Apirilaren 6tik 13ra arte, Arrasate eta Bergarako 70 bat artistaren lanak ikusi ahal izango dira Harresi aretoan. Abdon Juaristi zenaren omenez antolatu da erakusketa. Ordutegia: eguneroko 18:00etatik 20:00etara. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ LIBURU JOSTE  
IKASTAROA

Ekin Emakume taldeak liburu joste ikastaroa antolatu du apirilaren 21ean hasteko. Saioak arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izango dira. Ikastaroak ekainaren 2ra arte iraungo du. Prezioa: bazkideentzat 4.500 pezeta eta ez direnentzat 5.000 pezeta.

■ ARETO DANTZA  
IKASTAROA

Familia eta Gizarte Heziketarako zentruak areto dantza ikastaroa antolatu du. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Saioak asteartetan izango dira, goizeko 09:30etatik 11:00etara. Izen emateko

epea zabalik dago. (79 04 59).

■ ESKI IBILALDIA  
MENDIAN

Besaide Mendizale Elkartek eski ibilaldia antolatu du Aigues Torteko parke naturalera, apirilaren 25tik 26ra arte. Izena Besaideren egoitzan eman behar da, apirilaren 20an eta 21ean, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara.

■ JARRAIK ERATUTAKO  
GAZTE TOPAKETAK

Apirilaren 9tik 11ra, Jarraik antolatutako Gazte Topaketak izango dira Oartzunen. Hara joateko txartelak Biona eta Irati tabernetan daude salgai. Prezioa: 4.000 pezeta. Ikasle eta langabetuentzat 500 pezeta. Langileentzat, berriz, 1.000 pezeta. Autobusa Garibai kaletik irtingo da, 09:00etan.

■ SANTA GRAZIRA  
MENDI IRTEERA

Besaide mendizale elkarteko Gazte Ekintzak irteera antolatu du Pirineoetako Santa Grazira. Bidaia apirilaren 16tik 18ra arte izango da. Prezioa 3.500

pezeta. Izen ematea Besaideren egoitzan egin behar da, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara. Azken eguna apirilaren 6a.

■ ARDOARI BURUZKO  
IKASTAROA

AEDk ardoari buruzko ikastaroa antolatu du. Hasiera apirilaren 20an izango da eta bukaera maiatzaren 13an. Saioak astelehenetan eta asteazkenetan emango dira, arratsaldeko 19:30etatik 21:30etara. Parte hartzea mugatua denez, izena ematea apirilaren 16a baino lehen egin behar da AEDn. Prezioa: 6.000 pezeta. Bazkide, ikasle eta langabetuentzat, 5.000 pezeta.

■ DOKE TXAPELKETA

Apirilaren 10ean, doke txapelketa jokatu da Monterronen, eguerdiko 12:00etan.

# 7 asteartea

■ ZINEA

*Grandes esperanzas.* Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

**beatriz**

oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

M  
ARENAZA

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

FELIPE  
MADINA  
ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78

URRATS  
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE

USTEAK USTE

Arkoren geroa

**A**rrasate Komunikabideak 1991n sortu zen, herriko euskarazko komunikabideak —Arrasate Press eta Arrasate Telebista orduan— kudeatzeko. Zazpi urtean zehar dexente hazi da. Gaur egun 15 langile eta laguntzailerik mordo dugu, ganorazko etxe batean lanean.

Iaz 70 milioi ptako aurrekontua izan zuen. Horretatik erdia autofinantziaturik. Nork pentsatuko zuen sortu zenean Arkok 35 milioi pta irabaziko zituela urte batean? Bada, horixe da iaz gertatu zena: aldizkaria, telebista, gida komertziala eta Gipuzkoako Udal Euskaltegiarentzat antolatutako publizitate kanpainari esker, besteak beste, lortu ahal izan dira kopuru horiek. Euskara hutsean lan eginez.

Oraindik beste horrenbeste irabazi beharko luke erabat autofinantzatzeko. Arkoko zuzendaritza batzordeak jomuga horretan jarri du begia eta hori lortze aldera egingo du lan datozen urteetan. Badakigu ez dela erraza izango, baina ez dugu etsiko.

Joxe Aranzabal



HABEren curriculum berria dela eta

Nerea Maiztegi\*

**E**uskararen irakaskuntzan ari garenek baditugu zenbait kezka gure ikas-irakas prozesuaren inguruan. Gaur egun programazioa batez ere gramatika ardatzen da eta jakina erabileraren eta komunikazioaren kalterako izaten da. Bestalde prozesua azkartu beharra ikusten dugu. Ikasle asko helburua oso urrun ikusten duelako edo noiz bukatuko duen ikusten ez duelako erdi bidean gertatzen dira. Ikasle guztiei gauza bera eskaintzen zaie, eta sarritan ikasle bakoitzaren behar eta helburuak oso bestelakoak izaten dira. Eredu erreala erabili beharra dago, gauregun (beste aukerarik ez dagoelako) zerbait lan-

du nahi denean horretarako asmatutako egoera eta pertsonaiak erabiltzen dira.

Ikasleei dagokienez, sarritan motibazio eskasa erakusten dute, galdera arrunta dugu "Gauza berririk emango duzu gaur?", noski "gauza berri" esaten denean eduki gramatikal berri esan nahi da, askotan ikasleak ez dira konturatzen zein garrantzitsua den

“  
Ikasleari euskaraz komunikatzeko bideak ahal den azkarren zabaldu nahi zaizkio  
”

eskolan beste batzuek esaten dutena entzuten eta norbera hitz egiten aritzea, gero kale-ra joan eta esaten dutena ulertu eta hitz egin ahal izateko.

Curriculum berri honekin, gure kezka horiei erantzunez, ikasleari euskaraz komunikatzeko bideak ahal den azkarren zabaldu nahi zaizkio.

Hori gauzatzeko ikas prozesuaren hasiera-hasieratik komunikazio-egoera eta pertsonaia erreala erabiliko dira eredu eta aztergai, hizkuntza arauen, hiztegiaren eta egituraren ezagutza derrigorrezko baldintza bada ere, ez da nahikoa komunikazioa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da erabilerarako arauak ezagutzea.

Bestalde, ikaslearen autonomia bultzatu nahi da, ikasle irakatsiko zaio, bakoitzak bere beharren arabera ikasle dezan, horretarako zenbait ikas estrategia eskainiko zaizkio, ikasle bakoitzak beretzat egokia dena erabiltzeko.

HABEK eskainiko duen curriculum, programa bat baino gehiago da, etengabe aldatzen eta berritzen ari den prozesu baten atala bada. Oinarrikoa, orokorra, zabaldu eta malgu da, euskaltegi bakoitzari dagokio moldatu eta zehaztea, irakasle eta ikasle bakoitzari hezurramitza, hizkuntza bat ez baitago ikasterik tokian tokiko aldagaiak kontuan izan gabe.

\* Udal Euskaltegi zuzendaria

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industriaaldea E-04  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABALETIA

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETIA

## ARETXABALETA

### 1 Industrialde berria

Aretxabaletako Udalak industrialde berria egingo du Bainuetxean. 15.000m<sup>2</sup> izango ditu plantan. Urbanizazio guztiak ia 450 metroko luzera izango du. Urtebete inguruko epean pabiloiak eraikita egotea espero du udalak. Larrinbe inguruan ere, 1.000 metro<sup>2</sup>ko beste pabilioi bat egingo du. Ekimen hauekin ondorengo urteetan sortuko den industria eskariari aurre egin nahi dio Aretxabaletako Udalak.

## OÑATI

### 2 2.100 milioiko aurrekontua

Oñatiko Udalak 2.100 milioi ptako aurrekontua onartu zuen 98rako, joan den astean egindako osoko bilkuran. Aurten go aurrekontua, %8 igo da iazkoarekin alderatuz gero. Dagoeneko, banatu dira partidak batzorde desberdinetan. Udalaren zorra berriz, %20,42 izango da. EAJ, EA eta PSE-ren aldeko botoekin onartu zen aurrekontua. HBk, ordea, kontra bozkatu zuen. Alderdi honen ustez, udalak zor han-



diak ditu eta murriztu egin beharko luke aurrekontua.

## BERGARA

### 3 Mendi astea

Pol-Pol taldeak, Jardun elkar-teak eta Bergarako Udalak

Mendi astea antolatu dute. Asteartean hasi zen, eta igandera arte izango dira ekitaldiak. Pol-Pol aretoan ikusgai izango dira hamar eta hamabi urte bitarteko ikasleek egindako marrazkiak. Lanen gaia, nola ez, mendia da. Igandean, gaz-

tetxoenek Ixua-Kalamua-San Pedro ibilaldia egingo dute. Goizeko zortzietan irtengo dira frontoitik.

## ELGETA

### 4 Telefonía antena

Elgetako Udalak baimena eman zion Airtel enpresari urtangaren inguruan telefonía-ko antena bat jartzeko. Udalak eta Airtelex sinatutako hitzarmenaren arabera, telegono enpresak ordaindu egin beharko dio udalari orubea erabiltzeagatik.

## ANTZUOLA

### 5 Ibilaldiak igandean

Antzuolako gaztetxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu igandera. Goizean mendi ibilaldia egingo dute. Eguerdian, indarrak berreskuratzeko, babajana.

Bestalde, Arrola Mendizaleen Elkarrekin Arantzazutik Antzuolarako ibilaldia antolatu du. Autobusa 08:15etan irtengo da, herriko plazatik Arantzazura. Handik Udanarainoko ibilbidea egin, eta nahi duenak, Antzuolaraino jaits daiteke oinez.

**TOLDOS LECE C/B**

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14  
Musakola • ARRASATE  
Tel.: 79 23 83  
Faxa: 77 04 45

**AMI OINETAKOAK**

oinetako autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

# Euskara erabiltzeko planak beste hamar enpresatan, Euskalanekin

Aurrera begira, erronka handiak ditu Euskalan elkarteak. Horrela azaldu zuten behintzat, joan den astean egin zuten lehenengo batzar nagusian. Urtero hamar enpresatan euskara erabiltzeko planak sartzea dute helburu. Aurten, Fagorren falta diren lantegiak eta bailarako beste laupabost izango dira mikroplangintzak egingo dituztenak. Horrez gain, euskara erabiltzen ez duten enpresetan euskara batzordeak eratu eta barne plangintzak antolatu nahi dira. Bailarako lantegietan zein den euskalaren egoera ere aztertuko du Euskalanekin.

Egin beharreko beste lan garrantzitsu bat teknikarien koordinazioa da, Jose Ramon Elorzaren esanetan. "Iaz hasi ginen lan horrekin, hobetu beharreko puntua delako. Izan ere, enpresa txikietara heltzea oso zaila baita. Ezin da egu-nero hiruzpalau orduz teknikari

| Euskara lantegietan        |                   |                 |                  |
|----------------------------|-------------------|-----------------|------------------|
|                            | Euskara Batzordea | Mikroplangintza | Barne plangintza |
| • Alecop                   |                   | Bai             |                  |
| • Copreci                  | Bai               |                 |                  |
| • Euskadiko Kutxa          | Bai               |                 | Bai              |
| • Fagor Arrasate           | Bai               |                 | Bai              |
| • Fagor Automation         | Bai               |                 |                  |
| • Fagor Ederlan            | Bai               | Bai             |                  |
| • Fagor Elektratresnak     | Bai               | Bai             |                  |
| • Fagor Elektronika        | Bai               |                 |                  |
| • Fagor Sistemak           | Bai               | Bai             |                  |
| • Ikerlan                  | Bai               | Bai             |                  |
| • JMA                      | Bai               | Bai             |                  |
| • MCC S.Koop               | Bai               | Bai             |                  |
| • Mondragon Unibertsitatea |                   |                 | Bai              |
| • Polmetasa                | Bai               |                 | Bai              |

bat horrelako lantegi txikietan egon".

Euskalan elkartea enpresa eta lan esparrua euskal-

duntzeko sortu zen orain dela urtebete inguru. Hasierako ibilbide honetan emaitza onak lortu ditu. Inguruko hamahiru enpresak euskara lantegian erabiltzeko mikroplangintzak erabiltzen dituzte. Arrasaten Alecop, Fagor Ederlan, Fagor Elektratresnak, Fagor Sistemak, Ikerlan, JMA, eta MCC enpresek mikroplangintzen etapa desberdinetan daude.

Hemeretzi enpresatan, bestalde, euskara batzordeak eratu dira. Elkarteak 1.300 partaide ditu. Datu hauek, etorkizuna begi onez ikusteko aukera ematen diete Euskalaneko arduradunei. Orain garrantzitsuena zera da: euskara planek fruitu onak ematea. Arrakastarik gabe, gerta daiteke lantegiek auskararen aldeko lana uztea. Dena den, Jose Ramon Elorza baikor da, uste baitu euskara, poliki-poliki bada ere, sartuko dela lantegietan.

## Ibai-Artek bazkide kuota handitu du

Ibai-Arteko partaideak pozik daude 97ak emandakoarekin. Joan den astean egindako batzar nagusian, iazkoa urte ona izan zela azaldu zuten. Hasteko, alde zaharreko giroa pizteko elkarteak egindako ahaleginak emaitza onak eman zituen, Ibai-Artekoen ustetan. Bestetik, ekintza horiei esker, arrasatearrek Ibai-Arte zer den eza-gutu dute. Hemendik aurrera bide beretik segituko dutela azaldu zuen Rosarito Zezia-

ga, merkatarien elkarteko lehendakariak. Kanpaina eta ekitaldi deigarriak antolatu ditu Ibai-Artek arrasatearrek erakartzeko asmoz.

Alde zaharreko kaleak animatzeko dirua behar denez, Ibai-Arteko bazkideek kuota handiagoa ordaintzea erabaki zuten. Kalitatezko zerbitzuan eta kaleak girotzen egiten diren ahaleginak herritarrentzat eta merkatarientzat onak direlakoan daude.

Bestalde, Ibai-Arteko zuzendaritzan aldaketak izan direla aipatu behar. Zuzendaritzaren erdia berritu egin da. Sei lagun irten dira sei kide berriri lekua uzteko. Datorren urtean, zuzendaritzaren beste erdia berrituko da.

### UDABERRIKO KANPAINA

Musika, apaingarriak eta Eiffel dorre deigarriak jarri dituzte erdiko kaleetan Ibai-

Artekoek. Guztiaren arrazoia, elkarteak antolatu duen udaberriko kanpaina da. Kanpainaren ardatza: bi lagunentzako bidaia Parisera. Irabazleek Eiffel dorreko jate-txean bazkaldu eta Sena ibaiatik zehar itsasontzian paseatu ahal izango dute, besteak beste. Zozketa apirilaren 7an egingo da Arrasate Telebistan, zuzenean. Baduzue oraindik denbora, Ibai-Artek oparitzen dituen zenbakiak eskuratzeko.

# Autonomoak eta kooperatibistak aurrejubilatuta ahal izango dira

Madrilgo Kongresuak atzera bota zuen asteartean kooperatibistei eta beste langile autonomo askori aurrejubilatuzioa hartzea eragozten zien PPrener erresoluzioa. Erresoluzio horren arabera, 1967. urtea baino lehen Gizarte Segurantzari kotizatu dioten langile autonomo, kooperatibista, etxeko langile, nekazari eta atzerrian lan egindakoek, ezin izango zuten 60 urterekin jubilazioa hartu.

MCCren kasuan, 3.300 langile inguru aurrejubilatuzio barik geratuko lirateke. Kontuan hartuta aurrejubilatuen %90 euren lanpostua seme-alabei uzten dietela, 3.300 gazte uste baino dexente beranduago sartuko lirateke kooperatibetan.

Arrasateko kooperatibaren zuzendaritzak bide juridikoak zabaldu zituen egoerari aurre egiteko. Fagorreko Kontseilu Sozialak dramatikotzat jo zuen egoera prentsaren aurrean. Bide juridikoa nahikoa izango ez zen beldur,



Fagorreko Kontseilu Sozialak prentsaurrea eman zuen astelehen goizean egoera larriaren berri emateko.

bide politikoak ere jorratu zituen, UGT eta CCOO zentral sindikalekin eta Madrilgo Parlamentuko taldeekin harremanetan jarri zen. Kontseiluaren ekimenez, Izquierda Unidak mozio bat aurkez-

tu zuen asteartean Diputatuen Kongresuan.

Alderdi guztien aldeko botoekin, aurrejubilatuzioak zeudenetan uzteko mozioa onartu zuen Kongresuak. Beraz, lehengo lepotik burua.

Madrilgo exekutiboak Tole-doko Hitzarmenean hartutako erabakiari eutsiko dio. Hau da, 67a baino lehen kotizatu duten langile autonomoek aurrejubilatuzio aukera izango dute.

## Enkofratzaile ikastaroa antolatuko da maiatzerako

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak enkofratze ikastaro bat antolatuko du INEMen laguntzarekin. Enkofratzaile gutxi dago inguruetan eta Arrasateko eraikuntza arloko enpresei oso zaila egiten zaie horrelako profesionalak aurkitzea. Hau dela eta, maiatzaren 4tik urriaren 20ra arte 600 orduko ikastaroa emango da Arrasaten. Lanbideari buruzko eza-gupen teorikoak eta praktiko-

ak irakatsiko dira. Enkofratzaileak, peoi espezializatua-ren maila lortuko dute. Enkofratzaile lanak ikasteko hiri-buruetara jo behar izan duten gazteek, herrian izango dute orain ikasteko aukera. Ikastaroa ikasketa maila apaleko langabeei zuzenduta dago. Taldea 15 lagunekin osatuko da. Izena Udal Enplegu Zerbitzuan edo INEMen eman daiteke, apirilaren 1etik 24ra.

## Ertzaintzak radarrak jarri ditu Mugarri eta San Andres artean

Mugarritik sartzen ziren automobila azkarregi ibiltzen ziren, seguruenik bidearen zuzenak eta oztoporik ezak eraginda. Horrek istripu asko eragin ditu. Izan ere, Mugarri hasi eta San Andres bitartean sartu-irten asko gertatzen baitira egunero inguruko lantegi, baserri eta etxeetan.

Hori ikusita, eta jendeak bultzatuta, Arrasateko Udalak radarrak jartzea eskatu-

zion Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari. Erantzuna asteartean etorri zen: ertzaintzak radarrak jarri zituzten Mugarri eta San Andres artean.

Hemendik aurrera, ezin izango gara ibili orduko 50 km. baino lasterrago. Bestela isun handiak jarriko dira: 15.000 eta 50.000 ptaren artekoak, abiadaren arabera. Aurrerantzean, bada, kontuz ibili.

## astea bi hitzetan

### ■ Ez 35 orduko lanasteari

Arrasateko Udalak atzera bota zuen ELA, LAB, ESK-CUIS, STEE-EILAS, Ezker Sindikala eta Lankideak taldeak asteleheneko osoko bilkuran aurkeztutako mozioa. Mozioak 35 orduko lanastea eta langabeentzako oinarritzako soldata eskatzen du. Enplegua sortzeko neurrien ardura hartzea eskatzen die Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako legebiltzarrei eta apirilaren 23ko kale agerraldirako deialdia egiten du. Arrasateko HBk eta EBk sindikatuen proposamenen alde bozkatu zuten. EAJK, PSOEk, PPK eta EAKo bi zinegotzik, kontra. EAK mozio alternatiboa aurkeztu zuen, baina beste alderdiek ez zuten onartu.

### ■ Artabila baserria erre da

Larunbat iluntzean sua piztu zen Santa Ageda auzoko Artabila baserrian. Artabila Txirrita gainaldean dago, Saratxo baserria baino gorago. Haize gogorra zebilen larunbat gauean eta suhiltzaileek ezer gutxi egin ahal izan zuten. Baserria Llodiotarren zen, baina orain hiru hilabete edo, San Andres auzoan whiskytegia duten gazte batzuei saldu zieten.

### ■ Zortzi milioi inguru Tecsaentzat

Arrasateko Udalak Tecsa enpresari 8,5 milioi pezeta-ko kalte-ordaina ematea erabaki zuen asteleheneko osoko bilkuran. Tecsa enpresak, Ferixalekuko pilotalekuaren lehenengo proiektua egin zuen, baina Uarkapeko lurrikarak tarteko, proiektua ez

zen gauzatu. Udalak enpresarekin zuen kontratua bertan behera uzteko balio du kalte-ordainak. LKS ari da egiten orain proiektua. Tecsa-rekin zegoen auzia konponduta, baliteke frontoia-erlanak datorren udan hastea.

### ■ Udalaren salerosketak

Garagartzako Arteaga baserria saldu du azkenik udalak. Interesatu batzuek aurkeztutako eskaintza onartu du udalbatzak eta 17.400.000 pezetatant saldu du. Beste alde bate-rik, etxebizitza bat erosi du Zeharkale Estalia kalean, 15,5 milioi pezetatant eta Maala errabalean orubea 9 milioi pezetatant. Orubea Maala kaleko etxeen lerrotatze falta konpondu ahal izateko erosi du udalak. Zaldispen, Mecanizados Iru pabiloia erosi du 29 miliotan.



(San Viatorren)

1980-81 ikasturtea kooperatiba bihurturik hasi genuen. Baina aldaketa ez zen bat-batean gertatu. 1978. urtean hasi zen hausnarketa prozesua. (...) Egia esan, herriari begira bai, moldatzeko beharra ikusten zen. Badakizue Arrasaten kooperatibismoak indar handia izan duela. Bestetik, San Viatorrek beti ahalegin handia egin du herriari momentu bakoitzean behar zuena emateko. Ahalegin horretan beste ikastetxe-erriko elkarlanerako pausoak ere ematen hasi zen. Momentu hartan, monjen ikastetxea salbu, beste guztiak kooperatibak ziren. Hauekin lanean hasteko eta herriko eskaerei egokitzeko, San Viatorren izaera aldatu beharra zegoela somatu zen. Beraz, aldaketa herrian zegoen mugimendu horretan sarterko bidea zen eta horrek bultzatuta bihurtu zen San Viator kooperatiba”.

**ESTHER MERINO,**

Hik Hasi

1998ko martxoan



### TAXIEN PREZIOAK GORA

Taxi zerbitzuak prezio aldaketa izan du. Hemendik aurrera taxian abiatzeak 350 pta balioko du, egunez nahiz gaez edo jaiegunetan. Egindako km bakoitzagatik 110 pta ordainduko da egunez eta 175 gaez eta jaiegunetan. Taxiak itxaron beharrak orduko 2.100 pta kostatuko da egunez, eta 3.300 pta gaez.

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70

## Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

# Auzoetako arazoak plazara

Hilean behin Arrasateko auzoekin izango dugu hitzordua orrialde honetan. Helburua auzoz auzo gertatzen dena jasotzea izango da. Auzoetako zerbitzuak, jaiak, gertakariak eta eguneroko arazoei buruzko informazioa jasoko dugu. Beti ere, auzoetako biztanleentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak jorratzen saiatuko gara.



Hiriko auzoek eta baserrikoek problematika desberdinak dituzte.

## HIRIKO AUZOAK ETA BASERRI AUZOAK

Arrasaten hamahiru auzo daude. Erdialdea, San Andres, Musakola, Santamaina eta Uribarri-Erguin hiriko auzoak dira. Meatzerreka, Gesalibar, Udala, Uribarri, Garagartza eta Bedoña berriz, baserri auzoak. Gainera Musakolak eta San Andresek ere baserri auzoak dituzte. Bakoitzak alkatete bat du eta biztanle kopuruaren arabera, udalaren laguntza zehatza jasotzen du auzoaren mantenimendurako.

Hiri auzoen eta baserri auzoen problematika guztiz desberdina da. Baserri auzoetan, baserriko eta ingurugiroko gaiak dira garrantzitsuenak. Bideak, automobilaren menpekotasuna, biztanleak zaharrak izatea... Besteetan berriz, aparkaleku falta, saneamendu zerbitzuak, oinezkoentzako bideak, azken boladan leku askotan dauden lanak...

Poliki-poliki gai horiek guztiak aztertuko ditugu, gainera bada ere. Tokian tokiko eta garaiko interesaren arabera.

## DIRU KONTUAK

Aurten 101 milioi ptako partida onartu zuen udalak auzo guztietarako. Horietatik 79 milioi inbertsioetarako dira eta 23 milioi auzoen mantenimendu eta zerbitzuetarako. Azken partida hau, mantenimendukoa, auzo bakoitzaren biztanleen arabera banatzen da. Horrela, auzo jendetsuena den Uribarri-Erguinek 1.700.000 ptako aurrekontua du eta txikiak, Zaldibar, 105.000 pta. Diru horrekin, auzo bakoitzean gertatzen diren kalteak konpondu behar.

## Auzo alkateak

Auzo alkateek sarritan "kexuen postontzia" bezala sentitzen direla esaten dute erdi bromatan. Eurak dira jendearen kexuak eta aholkuak jasotzen dituztenak. Auzokoen eta udalaren arteko lotura dira, baina askotan ezin izaten dute gauza handirik egin biztanleen eskariei erantzuteko. Izan ere, auzo alkateen agintea mugatua baita. Adibide bat jartzearren, 100.000 pezeta baino gehiagoko lan bat egin behar den bakoitzean, udalari baimena eskatu behar diote auzo alkateek.

## INBERTSIOAK

Nahikoa lan izaten dute alkateek auzoetako jaiak diru gutxikin antolatzeke. Dena den, urtero inbertsio potolo batzuk egiten dira auzoetan. Aurten, 20 milioi pta. baserri bideetan joango dira eta beste 33 mendi nekazaritzan. 25 milioi auzo batzuek duten premiak betetzeko banatu ditu udalak.



# LASAGABASTER

## ZURE BETIKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55



## WILLSTÄTER GYMNASIUM

Horrela deitzen da gazte hauen ikastetxea. Argi dago izen horrekin alemaniarrek direla, baina egun hauetan gure artean izan ditugu. Almenera etorri dira truke programa beten bidez. Donostian, Leintz-Gatzagan, Bilbon... eta nola ez, eskoletan ere izan dira. Lagunak egin eta Euskal Herria ezagutu. Gaur euren herrira itzuliko dira. Triste xamar, seguru asko.



## EZKONGAIENTZAKO MEZUA

Eugenio Garciak eta Pili Herrerok hartu dute erabakia. Elkarrekin urte piloa bizi eta gero, bihar ezkonduko dira La Merced-eko elizan. *Santamainako sorginek* mezu bat bidali nahi izan diete orrialde honetatik: "Argazki hau atera zenetik urte asko igaro badira ere, *txerri guztiei heltzen zaie bere San Martina*. Zorionak bikote!"

Eta urte askotarako, gure partetik.

## SEGOVIAKO AKUEDUKTUPEAN

Garagartzako, edo Garagartzara ezkonduko 30 emakume hauek martxoko zubia aprobetxatu eta Segovia eta Salamanca ikustera joan ziren. Bigarren aldia da elkarrekin bidaia antolatzen dutela. Iaz Sevillan izan ziren eta euren arteko

giro ona ikusita, urtero egingo dute bidaia. Aurten, Segoviako akueduktua eta Salamancako Alberca bisitatzeaz gain, Sepulvedan egiten duten bildots zoragarria jan zuten. Esan digutenez, "bizi guztian jandako bildotsik onena"



# GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25



# Danona

KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06



## EUSKALAN BERTSOTAN

Euskalan elkarteak bere lehenengo batzar nagusia egin zuela eta, Andoni Egaña eta Jon Sarasua bertsolariak gonbidatu zituen ekitaldira. Nola ez, bertso batzuk eskatu zizkieten eta hara zer jaulki zuten:

*“Paper txiki bat egin beharra  
tokatu ohi zaigu beti  
ikusten duzu hemen Euskalan  
doala oso urruti  
hauei entzuten ari nintzela  
egondua naiz kezkatu  
guzti honek zer esaten dio  
Zarautzko playero bati”*  
Jon Sarasua

*“Hamar minutuz nik ipini det  
arreta eta ardua  
entzun dedanak gogoratzeko  
abagunea heldu da.  
Lehen Jose Ramon aritu zaigu  
ta gero haruntzko hura  
balorazio positiboa  
politikoak modura”*  
Andoni Egaña

## IZENAK

### Esteban Laskurain

Euskalan elkarteko lehendakari berria da, datozen bi urteetarako. Plaentzian jaioa, Merkataritza ikasketak egin eta gero, Euskadiko Kutxan hasi zen lanean. Gaur egun kontularitza analitikoaren egiten du, Olandixoko bulegoetan.

### Itxaro Zubillaga

kazetari aretxabaletarra Arrasate Press eta ATB utzi eta ETBk laster hasiko duen *Egun oro* saio berrira joango da kazetari lanak egitera. Itxarok Loiolako Herri Irratian egin izan du lan, kirol berriemaile gisa. Lau urte egin ditu Arrasate Presseko eta ATBko kirolak eta bestelako lanak egiten. Hala ere, kirol denboraldia bukatu bitartean, berak aurkeztuko du *Mondrasport* saioa.

## 58KO KINTOEK

aurten ere bazkaria egin zuten eta gizonak bakarrik. Ikus irakurlea idazle orrialdea.



**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17



**PEÑAKOBA**

Zarugalde, 46  
Tel./Faxa: 79 29 93  
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7  
Tel.: 78 05 60  
OÑATI



**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

# Gero eta erreklamazioak

Itxaro Zubillaga

Azken boladan nabarmen igo da erreklamazio kopurua udalan. Arazo edo istripu baten aurrean erantzukizuna bilatzeko joera areagotzen ari da. Aipatutako istripua leku publiko batean gertatuz gero, uste izaten da erru guztia udalak duela. Baina benetan da erredundu udala? Batzuetan izan daiteke; beste batzuetan, berriz, ez.

**M**oisés Altuna Arrasateko udaleko Zerbitzueta-ko arduradunak aipatu bezala, Arrasaten ere asko igo dira herritarrek udalari jartzen dizkieten kexuak. "Lehen erreklamazio garbiak izaten ziren. Esate baterako, ur sarea apurtu eta egoitza bat urpean gertatzen zenean. Gaur egun, aldiz, edozergatik erreklamatu da".

Edozer erreklamatu bada ere, horrek ez du esan nahi kaltetuak beti arrazoiak duenik. "Jendeak informazio txarra du. Uste du kalean gertatzen den guztia udalaren erantzukizuna dela. Hori, jakina, ez da horrela. Horregatik, ondo aztertu behar da istripua nola gertatu den. Bestalde, kontuan hartu behar dugu kalean dauden toki asko pribatuak direla. Horietan udalak ez du inolako erantzukizunik".

## KEXUA FROGATU

Udalera zerbait erreklamatu zera goazenean, ezinbestekoa da frogak eramatea. "Jendea gugana dator, kontua konstatzen digu, baina ez du frogazehatzik ekartzen. Froga-



Erreklamazioak jartzeko orduan frogak izatea derrigorzkoa da.

rik ez badago, fakturak eta sendagilearen txostena ez dira nahikoak izaten. Bestalde, esan behar dut istripua garbi ikusten denean, eta gu erredunduak bagara, ez daukagula inolako arazorik erantzukizuna hartzeko".

Jendeak udaleko zerbitzu sailean jartzen du kexua. Han, lehendabizi azterketa egiten dute. Ondo ikusiz gero, Gobernu batzordera eramaten da

gaia. Gobernu batzordean kexua onartu edo atzera botatzea erabakitzen dute.

Onartzen bada, balorazioa egin eta ondoren kaltetuari dagokiona ematen zaio. Ez bada onartzen, errekurtsioa jartzeko aukera dago.

Kexurik normalenak autoekin zerikusirik dutenak izaten dira. Dena dela, azken hilabeteetan ugalduta diren pertsonen

kexuak. "Kalean jaustea ez da kexu bat jartzeko arrazoiak. Kaltetuak frogak behar ditu, kalearen egoera txarragatik istripua izan duela argudiatzeko. Gauza bera esan daiteke automobilen kasuan. Espaloi batean gurpil bat zulatuz gero, ez du esan nahi udalaren errua denik. Beste arrazoi batzuk egon daitezke tartean".

Kontuak kontu, errekurtsioa jartzeko aukera herritar guztiok dugun arren, jaso ditzakegun erantzunak oso desberdinak izan daitezke. Alde bakoitza berea defenditzen saiatzen da. Gu herritar moduan ahalik eta aztarna fidagarrienak erakutsi behar ditugu. Udala, berriz, saiatu behar da herritar guztiak leiala izaten. Izan ere, ezer gertatu gabe, inor ez da joaten erantzukizunak eskatzera.

## ERREKLAMAZIOAK ARRASATEKO UDALAN

|      | Autoak | Erortzeak | Ura | Besteak |
|------|--------|-----------|-----|---------|
| 1994 | 8      |           | 2   | 2       |
| 1995 | 4      |           | 1   | 1       |
| 1996 | 2      | 4         | 3   | 1       |
| 1997 | 9      |           | 2   |         |
| 1998 | 2      | 3         |     | 1       |

# ioa gehiago Udalarari

## Roberto Abarrategi

Kaltetua

Roberto Abarrategik Pilarika egunean izan zuen motor istripua Ibañez Doktorea kalean. Bihurgunea hartzera zihoa-nean, motorra lurreko hare-an irristatu eta jausi egin zen. Robertok esan digun bezala, poliki zihoa eta han ez zegoen ezer seinalatuta. "Egia esateko, kale horretan inor ez zebilen lanean, bai ordea, ondokoan. Eroritakoan harritu egin nintzen, poliki nindolako, baina lurrari begiratu ondoren, berehala ohartu nintzen zergatiaz. Ertzaintzari deitu nion gertatutakoa kontatzeko eta hauek Udaltzaingora bidali ninduten. Udaltzaingoan esan zidaten kexurik izanez gero, erreklamazioa udaletxean jartzeko. Ez



dakit norena den errua, udalarena, lanen arduradunena... Dena dela, garbi daukat guztiok ordaintzen ditugula zergak eta kalea ezin dela arriskutsua izan. Horrela bada, gutxienez seinaleak jarrita egon beharko lirateke.

Udalak esan zidanean ez zuela hartu behar kexua bere gain, nire segurura joan nintzen. Kexua bideratuta dago. Ni, berriz, erantzunaren zain".

## Mari Barquero

Kaltetua

Marik Maalako Arrabalean izan zuen istripua, otsailaren 5ean. Estropozo egin eta hanka bihurritu zuen. Ez zen jausi, baina zartada handia hartu, bai. Hasieran bihurritua zela esan zioten. Ondoren, oineko bi hezur zituela apurtuta. Bi hilabete egon da bajaran. "Kale horretan galtzada harriek gorabeherak dituzte. Gainera, ez naiz istripua izan duen pertsona bakarra izan".

Mariren senarrak udal-tertxera jo zuen emazteari gertatutakoa azaltzeko, eta hantxe esan zioten kexua jar zezakeela. "Hasieran gure asmoa ez zen dirua lortzea, protesta egitea baizik. Udal langileen erantzuna hauxe izan zen: 'kalea ondo dago eta ez dugu



zure kexua onartuko. Gainera, ezin dugu frogatu kalearen egoeratik jausi zaren edo ez".

Erantzunarekin harrituta geratu ginen. Kale horretan istripu asko egon da eta begibistan dago bere egoera txarra.

Ezetz emandakoan, abogatu batengana joatea posible nuela esan zidaten. Horretan sartuz gero, argi dago galtzen atera zaitezkeela.

## Fran Fernandez Lagun Aro aseguru etxea

Erreklamazioak egiteko orduan bi aukera egon daitezke. Nork berea zuzenean egitea edo aseguru etxe baten bidez aurrera eramatea. Aseguru etxeek altzairuetan eta autoen arazoetan hartzen dute parte, horiek egoten baitira aseguraturuta. Kasu hauetan zer egin behar den jakiteko, Fran Fernandez abogatuarekin izan gara.

Kexu baten aurrean lehenik eta behin egoera aztertu behar da, kaltetua eta ustez errudunen arteko arazoa argi gera dadin. Kasu batzuetan garbi ikusten da, baina bes-

te batzuetan arazoak izaten dira. Arazoa garbia bada, azkar joan daitezke tramiteak. Alderantzizkoan, berriz, ikertu egin behar da. Ez bada onartzen, kaltetuak epaitegi batera joateko aukera du. Onartzen bada, balorazio letorke. Aseguru etxea ahalgintzen da oreka bilatzen kaltea eta kalte-ordainen artean, horrela alde biak gustura gera daitezke.

Kalte eragilea udala bada, bi prozedura eraman daitezke. Kaltetuak arrisku osoko aseguru badu, aseguru etxeari ordaintzen du. Ondoren,

eskatu beharrekoa udalari eskatzen dio. Negoziazioa udalak duen aseguru etxearekin egiten da.

Arrisku osoko aseguru-rik ez dugunean, nork berea ordaindu beharko luke. Ondoren, dirua aseguru etxeari itzuliko luke.

Udalak, beraz, hainbat erabaki har ditzake erreklamazioen aurrean, baina tramiteak aseguru etxeak eramaten ditu.

Aipatutakoa auto edo mobiliarioan izandako kalte-etarako ezarri daiteke. Dena dela, gerta daiteke pertsona bat



jausi eta kalteak izatea. Nahi izanez gero, prozedura guttia aseguru etxe batek eramatea, kaltetuak defentsa judizialeko aseguru izan beharko luke. Bestela, bere kabuz egin beharko lituzke

# JJK, goi mailako diseinua

Hamaika urte dira Juanjo Berasategi eta Kike Gomez de Segurak Euskadiko Kutxako Publizitate Saila utzi eta JJK enpresa sortu zutela, elkarre anónimo gisa.

JJK akronimoen atzean "Juanjo eta Kike" dago. Juanjo merkataritzan eta arte grafikoetan zen aditua. Berak kudeatzen zuen publizitatea, beraz. Kike, berriz, arte zuzendaria eta sortzailea genuen.

Lehen urtean Durango izan zuten bulegoa, baina handik aurrera Arrasatera etorri ziren, Amaia antzokiaren ondora. Bost urtean zehar jo eta ke aritu ziren lanean. Administrazioarentzat lan dexente egin zuten, baina eguneroko bezerorik gehienak inguru honetakoak ziren. 1992an Juanjo Berasategi joan egin zen eta Kike Gomez de Segurak hartu zuen enpresaren ardura.

## KIKE GOMEZ DE SEGURA

Barazar inguruan jaio zen. Eskola Politeknikora etorri aurretik, bospasei urte egin zituen Markinan. Ingeniaritza amaitzeke, Lan Kide Aurrezkiari sartu zen, hasiera batean bulegoak marrazten. Poliki-poliki bere saila publizitate saila bilakatu zen. Bera ere, oharkabean kasik, diseinurako zuten trebetasuna lantzen joan zen, saileko sortzailerik garrantzitsuena bihurtu arte. Olandixon zebilela, ETBren-



Kike Gomez de Segura, Nerea Murgoitio eta Jon Arrate.

tzako anagrama egin zuen, gaur egun denok ezagutzen dugun txantxangorri ospetsua.

JJK sortu zuenetik, buru

belarri ari da lanean. Deseina da enpresaren lanaren oinarria: ideiatik hasi eta euskarri desberdinetan gauzatu arteko

urrats guztiez arduratzen da. Horretarako lau ordenadore eta hiru langile ditu: "gaitasunez horniturikoak eta helduak". Horrela definitzen ditu Kikek. Badaki ordainduko zaiola ez ideia zoragarri bat izateagatik, baizik eta ongi eta serio egindako lanagatik. Horregatik, behin eta berriro errepikatzen du kooperatibetan ikasi zuen leloa: "gaurko lana atzokoa baino hobea izan dadila eta biharkoa baino exkasagoa".

Ez da filosofia txarra hasierako Lore Gazteak dantza taldeko dantzarien irakasle eta xisterako munduko txapeldunak izatera iritsi diren Konpa eta Elizegiren maisuarena.



- Sortze data .....1987
- Langile kopurua .....4
- Zuzendari kudeatzailea .....Kike Gomez de Segura
- Diseinatzailea .....Jon Arrate
- Diseinu laguntzailea .....Nerea Murgoitio
- Diru kudeaketa .....Luis Fornié
- Bezeroak .....Fagor Taldea  
Lagun Aro, Ikerlan, Elkargi, ETB, Ulma, EIT
- Helbidea .....Otalora, 2

## Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 79 20 57



## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 79 22 55 79 14 25

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 79 46 62

# Musakolan gasolina merkeago

Gasolina erraz igoten da eta nekez jaitsi. Prezioz, jakina. Orain, adibidez, inoiz baino merkeago dago munduko merkaturtan, baina guk ez dugu gehiegi nabaritzen. Horrek badu bere arrazoia: gasolinaren prezioaren %70 inguru zergak dira eta gobernuak ez dute diru iturri hori inola ere galdu.

Gure artean, berriz, gasolinaren prezioak behera egin du Eroskik gasolindegia jarri zuenetik. Hostaleko gasolindegiko prezioak behintzat,

berehala jaitsi ziren. Hauek hormirudi handi bat daukate jarrita, gasolina 8 pta merkeago iragarritz. Dena den, aste honetan super gasolinari dagokionez behintzat, Eroskiko prezio bera du: 108,9 pta.

Eroskitik zenbat eta urrutiago, prezioak are eta garestiago. Horixe gertatzen da Mugarriko gasolindegian. Ez da harrizkoa, bada, arrasatear gehienek Musakola aldeara egiten badute gasolina hartzera: Eroskira edo hostalera. Sei pezeta litroko asko da.

## Super gasolina Arrasaten



PTA.

|                   |       |
|-------------------|-------|
| • Eroskin .....   | 108,9 |
| • Hostalean ..... | 108,9 |
| • Mugarrin .....  | 114,9 |

# Euroa

**Seguru da Espainiak eta Frantziak —eta haiekin batera, alde bietako euskaldunok— hasieratik parte hartuko dutela Europak sortuko duen diru batasunean?**

Azken erabakia EBko estatuburuek datorren maiatzaren 2an eta 3an egingo duten biltzarrean hartuko da. Hasteko, diru batasunerako eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten estatuak sartuko dira, horrela nahi izanez gero behintzat. Europako Batzordeak eta Europako Diru Institutuak egindako azken txostenen arabera, Espainiak eta Frantziak bete egingo dituzte baldintzok. Gainera, Madrilgo eta Parisiko gobernuetan zein oposizioetan oztoporik ikusten ez denez, esan liteke baietz, Espainia eta Frantzia euroaren taldean izango direla. Beraz, has gaitzke prestatzen.

Hori dela eta, hemendik aurrera, Arrasate Pressek astero-astero izango du txoko bat euroaren inguruko galderei erantzuteko. Hauxe duzue txokoa. Galderak denon ahotan dabiltzanak dira. Erantzunak, ditugun ahalik eta egokienak.

**€ Euroaren balioa**  
**168,5 pta.**




# GRONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



## Zaldibarren bost talde sailkatuta

Zaldibar txapelketan bost talde ditugu sailkatuta, bigarren aldía bukatzeko bi jardunaldi falta direnean. Bostak urduritasunak alde batera uzteko moduan daude. Beste batzuek, berriz, izerdi lodiak isuri beharko dituzte euren burua hirugarren aldian ikusteko.

### Laburrak

#### ■ PARTIDA ERABAKIORRAK.

Seigarren jardunaldia erabakiorra izango da. Horregatik, neurketa intesgarri batzuk aipatuko ditugu. AC Surcos eta Betrayerek jokatu dute larunbatean. Galtzen duenak ez du aurrera egiteko aukerarik izango. Aurrera Boliek ere derrigorrez irabazi behar du

Sokoakoak taldearen aurka. Los Heredia eta Jey Holigans lehian izango dira, arratsaldeko 19:00etan. Jey Holigansen nahi eta nahiez irabazi behar du, arratsaldeko 17:00etan. Azkenik, ikusteko moduko beste partida bat Estrella Taberna eta Totemen artekoa izango da.

#### ■ TXEYENEX KALEAN.

Txeyenex taldea ez zenez aurkeztu bosgarren jardunaldian, kalean dago. Totem taldearen kontra jokatu behar zuen atzeratutako partida, baina Totemek jokatu barik eskuratuko ditu puntuak. Aldibi eta Estrella tabernaren arteko partida, apirilaren 18an jokatu da.

#### ■ BI TALDEK ABISUA JASO DUTE


Aurrera Bolie eta Insert Coin taldeen arteko partida bukaeran iskanbila piztu zen lau joaklarien artean. Hori dela eta, antolatzaileek erabaki dute talde biei abisua ematea. Kontuz ibili, lehenaren ondoren bigarrena etor daiteke eta!

Haurdun bazaude, LAURA da zure jantzidenda.

Neurria ez da arazoa izango udaberriko moda gaztea jazteko.

Neurri guztiak ditugu, baita zabalenak ere.

# Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 79 05 80

## Sailkapenak

| A taldea         | PARTIDUAK |         |       |       | GOLAK |       | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
|                  | Jokat.    | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | Guzt. |
| Sokoakoak        | 5         | 5       | 0     | 0     | 30    | 10    | 10    |
| Narnaja Mekanika | 5         | 4       | 1     | 0     | 30    | 18    | 9     |
| Aurrera Bolie    | 5         | 2       | 1     | 2     | 24    | 16    | 5     |
| Nuevo taberna    | 5         | 2       | 0     | 3     | 32    | 27    | 4     |
| Insert Coin      | 5         | 2       | 0     | 3     | 22    | 24    | 4     |
| Zotz             | 5         | 1       | 1     | 3     | 17    | 23    | 3     |
| Jotakabau        | 5         | 0       | 3     | 2     | 11    | 19    | 3     |
| Ke Oxtias        | 5         | 1       | 0     | 4     | 12    | 41    | 2     |

| B taldea      | PARTIDUAK |         |       |       | GOLAK |       | PUNT. |
|---------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
|               | Jokat.    | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | Guzt. |
| Argi Ibili    | 5         | 5       | 0     | 0     | 41    | 17    | 10    |
| Koka Juniors  | 5         | 3       | 1     | 1     | 37    | 13    | 7     |
| Pepelus       | 5         | 3       | 1     | 1     | 28    | 20    | 7     |
| AC Surcos     | 5         | 3       | 0     | 2     | 29    | 21    | 6     |
| Betrayer      | 5         | 2       | 1     | 2     | 23    | 26    | 5     |
| Lautherbrunen | 5         | 1       | 1     | 3     | 23    | 33    | 3     |
| Jako al Rey   | 5         | 1       | 0     | 4     | 13    | 31    | 2     |
| Tamagotxi     | 5         | 0       | 0     | 5     | 12    | 45    | 0     |

| D taldea     | PARTIDUAK |         |       |       | GOLAK |       | PUNT. |
|--------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
|              | Jokat.    | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | Guzt. |
| Irati STS    | 5         | 3       | 1     | 1     | 32    | 16    | 7     |
| Garaje Oscar | 5         | 3       | 1     | 1     | 22    | 17    | 7     |
| Los Heredia  | 5         | 2       | 2     | 1     | 14    | 13    | 6     |
| KKjauri      | 5         | 2       | 2     | 1     | 19    | 29    | 6     |
| Fraguel gol  | 5         | 2       | 1     | 2     | 10    | 9     | 5     |
| Jey Holigans | 5         | 2       | 0     | 3     | 21    | 19    | 4     |
| DA Iriztu    | 5         | 1       | 0     | 4     | 22    | 25    | 3     |
| AT Celaya    | 5         | 1       | 0     | 4     | 22    | 25    | 2     |

| E taldea         | PARTIDUAK |         |       |       | GOLAK |       | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
|                  | Jokat.    | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | Guzt. |
| Lorategi         | 5         | 5       | 0     | 0     | 36    | 20    | 10    |
| Aldibi           | 4         | 4       | 0     | 0     | 31    | 9     | 8     |
| Branka Taberna   | 5         | 3       | 0     | 2     | 28    | 24    | 6     |
| Leya             | 5         | 2       | 1     | 2     | 29    | 36    | 5     |
| Totem            | 5         | 2       | 0     | 3     | 18    | 15    | 4     |
| Estrella Taberna | 4         | 2       | 0     | 2     | 19    | 20    | 4     |
| DKB              | 5         | 0       | 1     | 4     | 20    | 46    | 1     |
| Txeyenex         | 5         | 0       | 0     | 5     | 12    | 23    | 0     |

## Emaitzak

### A taldea

Naranja Mekanika 4 - Jotakabau 4  
Zotz 1 - Ke Oxtias 5  
Sokoakoak 8 - Nuevo Taberna 3  
Aurrera Bolie 4 - Insert Coin 6

### B taldea

Argi Ibili 7 - Tamagotxi 2  
Jako al Rey 4 - Lautherbrunen 7  
Koka Juniors 7 - Betrayer 3  
Pepelus 6 - AC Surcos 3

### D taldea

Fraguel gol 1 - Irati STS 3  
KKjauri 7 - AT Celaya 5  
DA Iriztu 4 - Jey Holigans 10  
Garaje Oscar 2 - Los Heredia 4

### E taldea

Estrella taberna 1 - Txeyenex 0  
Totem 10 - DKB 1  
Branka Taberna 4 - Lorategi 6  
Leya 2 - Aldibi 13.

## Hurrengo partidak

### Apirilak 4, Larunbata

#### Zaldibar

8:50 Branka taberna - Leya  
10:00 Tamagotxi - Lautherbrunen  
11:00 Sokoakoak - Aurrera bolie  
12:00 AC Surcos - Betrayer  
13:00 Narnaja Mekanika - Zotz  
14:00 DA Iriztu - Garaje Oscar  
15:00 Insert Coin - Nuevo taberna  
16:00 Jotakabau - Ke Oxtias  
17:00 Los Heredia - Jey Holigans  
18:00 Estrella Taberna - Totem  
19:00 Aldibi - Lorategi

### Apirilak 5, Igandea

9.50 Fraguel Gol - KKjauri  
11:00 Koka Juniors - Pepelus  
12:00 Irati STS - AT Celaya  
13:00 Argi Ibili - Jako al Rey



## ZALDIBAR ETA URIBE AUZOA

Zaldibar txapelketan bosgarren jardunaldia jokatu da asteburu honetan. Ondorengo bi aste bukaeretan atsedena izango dute eta apirilaren 25an-26an bigarren aldiko azken jardunaldia jokatu da. Uribe Auzoan, berriz, jai izango dute apirilaren 11n eta 12an. Zazpigarren jardunaldia 18an eta 19an jokatu da

## Uribe auzoa txapelketa

### Hurrengo partidak

#### Apirilak 4, Larunbata

##### Iturripe A

10:00 El Milagro de Bautista - P3000  
11:00 Nuevo taberna - Elvis Team  
12:00 Kamasutra - Xhass  
13:00 Felpudo Maldito - Chuleton Rovers  
14:00 Babajana Sexy - Komando Alpagat  
15:00 Sporting Tron. - Rotor de Bolbo  
16:00 Argi Plastic - Rociing de Molotov  
17:00 Spoting - Lontxo Taberna  
18:00 Milan Tokao - Ziga Mutlizaha  
19:00 Medio Grano - Balon Rojo

##### Iturripe B

13:00 Ainarexia - Alai Gozokiak  
14:00 Trotabares - Dribling  
15:00 AC Massive - Kalandrax  
16:00 MR Magoo - La Ostra Azul  
17:00 Pening Lapsus - Hilarion jatetxea  
18:00 Potrosorri - Fraguel Gol  
19:00 Rex 22 - Doble cero

#### Apirilak 5, Igandea

##### Iturripe A

11:00 Cartonajes Igamo - Leya  
12:00 Bortxitxak - Borrock Roll  
13:00 Blind - Munar Txiki

##### Iturripe B

11:00 Akta - Decadencia  
12:00 Piernodoiuna - Sathelites - DKB  
13:00 Astoen Villa - Txotx

### Emaitzak

#### A taldea

Nuevo taberna 6 - Kom. Alpagat 7  
Sporting de Tronp. 7 - Babajana 4  
Milan Tokao 4 - Elvis Team 11  
Trotabares 1 - Rotor de Bolbogr. 3  
DKB 4 - Ziga Mutli Zaha 2  
Piernodoiuna sathel 2 - Dribling 3

#### B taldea

Potrosorri 3 - Leya 5  
MR Magoo 2 - Cartonajes Igamo 6  
Medio Grano 2 - Fraguel Gol 3  
Kamasutra 2 - La Ostra Azul 1  
Spoting 2 - Balon Rojo 0  
Lontxo Taberna 2 - Xhass 2

#### D taldea

Astoen Vila 4 - Decadencia 4  
Rex 22 0 - Akta 7  
Bortxitxak 3 - Txotx 2  
Pening Lapsus 1 - Doble Cero 3  
Blind 3 - Borrock Roll 8  
Munar Txiki 7 - Hilarion jatetxea 3

#### E taldea

P3000 5 - Argi Plastic 2  
Felpudo Mal. 4 - Racing Mol. 2  
Mendizabal 6 - Chuleton Rovers 1  
AC Massive 3 - El milagro de Baut. 5  
Alai Gozokiak 8 - Kalandrax 4

Trialsin zalea

## NESTOR KORTABARRIA

Gipuzkoako trialsin txapeliduna  
haur mailan

— **Espero zenuen txapelketa irabaztea?**

— Asier Isuzkiza eta biok puntuz parekatuta geunden. Azken proba Azpeitian izan zen eta han hobeto ibili nintzenez, txapelketa eskuratu ahal izan nuen. Egia esateko, sorpresa izan zen.

— **Trialsina kirol arriskutsua da?**

— Batzuetan izan daiteke. Harkaitzetan eta harrietatik zehar ibiltzea egokitzen denean, kontuz ibili beharra dago. Horregatik babestuta joaten gara: buru babeslea, esku larruak, belunetakoa eta orkatila babesleak eramaten ditugu.

— **Bizikleta bereziak izaten dira?**

— Arinak eta gogorak dira. Bizikletak badu bere eragina, baina norberaren trebezia da garrantzitsua. Oztopo asko eta zailak gainditu behar ditugunez, ez da nahikoa bizikleta ona izatea.

— **Beldurrik pasatzen duzue?**

— Bai. Altuera handiko zubiak zeharkatu behar direnean, beldurra pasatzen da. Nik aita izaten dut aholkuak ematen.

— **Trialsinak eta ziklo krossak badute zerikusirik?**


— Ez, oso kirol desberdinak dira. Niri bizikletan ibiltzea gusatzen zait, baina beti mendian.

— **Zartada handiak hartzen dituzue?**


— Nahi baino handiagoak. Belauanean eta ukalondon hartzen ditugu. Nolanahi ere, ez dut sekula lesio larriarik izan.



## ERRUGBIA Gogoa asetuta

 Herensugea beterano taldekoek Euskal Ligako en kontra jokatu zuten Garagartzan. Lagun arteko neurketak ondo pasatzeko balio izan zuen. Maiazaren 9an, berriz, Bordeleko beterano taldea izango dute aurkari eta orduan sasoiaren daudela erakutsi beharko dute.

## FUTBOLA Derbya larunbat arratsaldean

 Mondrak eta UDAl elkarren kontra jokatu dute larunbatean, arratsaldeko 18:00etan Atxabalpen. Arrasatearren eta atxabaltarren arteko partidak beti izan dute eta izango dute zerbait berezia. Jokoan hiru puntu egongo dira, baina baita jarraitzaileen eta jokalarien arteko ohorea ere. Une honetan, talde biak puntuz parekatuta dabilta. Udak 50 puntu ditu eta sailkapeneko seigarren tokian dago. Mondra zarpigarrena da. Talde biek gorabehera asko izan dituzte denboraldian zehar. Erraz ikusten ziren partidak galdu egin dituzte eta zailak irabazi. Edonori irabazteko gauza dira, baina era berean edonoren kontra galtzeko. Esan daiteke indarrez eta mailaz paretan dauden bi talde izango direla lehian. Lehen itzulian 3 eta 1 irabazi zuen UDAl. Bigarrenean arrasatearrak nagusitzen saiatuko dira. Ikusizuna eta saltsa ziurtaturik daude. Jokalariek gogoa eta joko ona erakusteko egingo dute lan. Jarraitzaileak, berriz, Atxabalpe betetzen ahalegindu behar.

Mondrako Emakume Taldeak Tuterako *La Amistad*

taldea izango du aurka igandean, arratsaldeko 16:00etan. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak Elgoibarri 4 eta 1 irabazi ondoren, geratzen zaizkion bi neurketetan puntuak eskuratzea izango du helburu. Nafarren kontra irabazten badute, azken jardunaldian Sondikaren bisita izango dute Atxabalpen.

## SASKIBALOA Oraingoan ere bai

 Joko ona eta gogo handia erakutsi zuen Arrasate Saskibaloia taldeak Humiclima taldearen kontra. Ezaugarri horiei esker, garaipena Iturripen geratu zen. Igande honetan Arrigorriagako Padura izango dute nor baino nor, eguerdiko 12:00etan. Bizkaitarrak sailkapeneko azken tokian daude. Hala ere, talde biek puntu berdina dituztela esan behar. Lehia handiko norgehiagoka aurreikusten da. Arrasatek irabaziko balu, bigarren mailan geratzeko urrats garrantzitsua emango luke.

## ESKUBALOA Amets gaiztoaren bukaera

 Arrasate Eskubaloia taldearentzat asteburu honetan bukatuko da denboraldi honetako amets gaiztoa. Izan ere, azken jardunaldia jokatu baitute Portugalete taldearen kontra. Herreroen mutilek ez dute ezer jokatu. Tramite hutsezko partida izango da, baina jokatu beharrekoa. Hemendik aurrera, beraz, datorren urteari begira jarri beharko dira.



# Dorletako Ama Eskolako txirrindularien lasterketak

Fagor taldeko gazteek Errenteria Sarian hartuko dute parte igandean, goizeko 10:00etan. Lasterketak 42 kilometro izango ditu eta Fagorretik hamaika txirrindulari joango dira.

JMA bigarren urteko kadeteak Mendaroko Uda-berri sarian arituko dira larunbatean. Arratsaldeko 16:00etan elkartuko diren ehun txirrindularietatik zortzi Dorletako Ama taldekoak izango dira. Lehen urteko kadeteek Urrietako Hiria txapelketa izango dute erronka larunbatean, goizeko 10:30etan.



JMA eta Fagor taldekoen garaipena lortzea izango da helburua.

90 txirrindulari elkartuko dira 36 kilometro egiteko. JMA taldeak zortzi eramango ditu. Azkenik, Arra-

sate Kirolak taldeko haurrek eta alebinek Oñatin izango dute lasterketa larunbatean arratsaldeko 16:30etan.

# Banan-banako eta taldeen arteko Gipuzkoako txapelketa

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko atletak banan-banako eta taldeen arteko Gipuzkoako txapelketa izango dute Eibar-ko Unben eta Tolosako Bera-zubín. Arrasatek ordezkaritza zabala izango du.

Unbeko pistetan ondorengo atletak izango dira: 100 metrotan, Ibai Jurado, Iker Jurado eta Mikel Apraiz. Azken honek puntuatzeko aukera izango du. Disko jaurtiketan, Oscar Gabilan. Mailu jaurtiketan, Felipe Martin. Salto hirukoitzean, Iker Jurado. 600 metrotan, Iñaki Juez. 3.000 metrotan, Julen Maiztegi. 4x100 errelebo proban, Oscar Gabilan, Ibai Jurado, Iker Jurado eta Mikel Apraiz.

Igandean Tolosako Bera-zubiko pistetan elkartuko dira



Arrasateko atletak duten onena ematen saiatu beharko dira.

atletak. 300 metro hesitan Maikel Sagasta arituko da. Pisu jaurtiketan, Maika Aizpurua. 300 metrotan, Ibai Juradio. Txabalinan, Unai Orue. 1.000 metrotan, Fernando Nogales eta Iñaki

Juez. Luzera jauzian, Rafa Gomez. Azkenik, 4x300 errelebo proban, Iñaki Juez, Ibai Jurado, Fernando Nogales eta Mikel Apraiz. Guztiek izango dute puntuatzeko aukera.

# Gustuko emaitzak karaten

Saioa Karate eskolako karatekek bi txapelketa izan zituzten asteburuan. Azkoitiko txapelketa sei talde joan ziren. Alebin eta haur mailako lehiaketa izan arren, maila ona ikusi zen. Iñaki Muñozek zuzentzen duen taldeak, Iban Galan, Laida Ramos eta Aimar Garciaeren taldeak lehen postua eskuratu zuten. Lehia handiko proba izan zen eta azken arte ez zen talde irabazlearen izena ezagutu. Denis Soriano, Josu Gonzalez eta Joel Medrano, berriz, laugarren geratu ziren.

Entrenatzaileak esan zigun maila polita erakutsi zutela. Gazte hauek horrelako txapelketa batean parte hartzen duten lehen aldia dela kontuan hartzen bada batez ere.

Oñatiko txapelketari dagokionez, hor ere ondo aritu ziren Saioako karatekak. Alebinetan Jon Rodriguezek hirugarren postua eskuratu zuen. Haur mailan Iban Cid brontzezko domina lortu zuen. Hamalau urtekoen artean lehen Ruben Baena izan zen.

Saioa eskolako karateka gazteek ez dute txapelketarik izango apirilaren bukaera arte. Azken asteburuan Donostia-ra joango dira Udaberriko Karate Lehiaketan parte hartzera. Txapelketa horretan maila onena erakusten saiatuko dira arrasatearrak. Hori lortzeko buru belarri dabilta entrenatzen.

Karateka nagusiak, bestalde, gerrikoz aldatzeko azterketak ari dira prestatzen. Entrenatzaileak esan digun moduan, azterketa gogorak izaten dira eta ondo prestatu beharra dago.

**RUFINA OLASAGASTI** (EKIN EMAKUME TALDEKO LEHENDAKARIA)

# “Emakume euskalduna

**R**ufina Olasagasti Ekin Emakume Taldeko lehendakari berria da datozen bi urteotarako. Rufina Soziologian Lizenziatua da eta Bergarako Udaletxean kultura gestore moduan egiten du lan. Elduainen jaio zen, eta Euskal Herriko makina bat herritan bizi izan da, baina Arrasaten bizi izan da urterik gehien.

— Zertarako sortu zen Ekin Emakume taldea?

— Ekin 1985. urtean hasi zen lanean AEDren adar moduan. Euskararen normalkuntza zen hasierako helburua. Hasierako urteetan AEDk hainbat adar zituen: haurrak, komunikabideak eta zera horretan sortu zen emakume taldea.

— Emakume talde baten beharra zegoen herrian?

— Gure helburua zen eus-

kararen normalkuntza lortzea herrian. Horretarako emakumearen egitekoa ezinbestekoa da. Ama da etxeko motorra, bera da familia aurrera ateratzen duena. Arlo hori landu beharra geneukan. Emakumeen artean euskararen normalkuntza lortuz gero, familia osoaren euskalduntzea are errazagoa izango litzateke.

— Ekin etxekoandreei bakarrik zuzendutako taldea da?

— Ez, gaur egun ez. Hasieran etxekoandreei begira hasi ginen. Urteetan ekitaldi guztiak lan orduetan antolatuta izan ditugu, baina gaur egun etxetik kanpo lan egiten duten emakumeengana ere iritsi nahi dugu. Horretarako hitzaldiak eta ikastaroen ordutegi zabalagoa eskainiko ditugu.



“Emakumeak menpekotasunean bizi izan gara urteetan. Ekinek konfiantza eman nahi dio emakume euskaldunari. Bere burua onar dezala”

# la gure lan esparrua”

**— Ekin Emakume Taldeak feministatzat du bere burua?**

— Ez. Ekinek ez du feminismoaren inguruan jarrerarik. Joera horrek badu pisurik talde barruan, baina herrian baziren talde feministak. Ekin-ek ez du talde feminista izan nahi.

Ekin euskara eta emakumeak batzea planteatzen du, gure helburua emakume euskalduna onartzea da.

**— Baina emakume euskaldunak ez du bere burua onartzen?**

— Duela belaunaldi batzuetako euskaldunak euskaldun izateagatik mespretxatu gintuzten. Horren inguruan, adin jakin bateko euskaldun askok konplexu ugari dituzte. Emakumeak are eta gehiago. Emakumeoi orokorrean menpekotasuna erakutsi zaigu. Beraz, emakumeok euskaldun izateagatik eta emakume

kume izateagatik baztertuak egon gara. Guk emakumeei beren buruan konfiantza eman nahi diegu. Emakumeak bere burua onartu behar du, nork bere buruan konfidantza izan behar du.

**— Nola lortzen da hori?**

— Ekinek hainbat ekitaldi antolatzen ditu: hitzaldiak, ikastaroak... Ekitaldi guztietan emakumeon arteko elkar komunikazioa da helburu nagusia. Emakumeoi interesatzen zaizkigun gaien inguruan bildu eta solas egitea, ohiko aisialdiari irtenbide bat ematea. Emaku-

meak hitz egitera, eztabaidatzera animatu nahi ditugu. Horrela, espero dut, lortuko dugula emakume euskaldunak bere burua onartzea.

**— Martxoaren 8ko ekitaldian parte hartu zenuten?**

— Bai, gauza polita izan zen. Lorpen bat iruditzen zait udalaren eta herriko emakume taldeen aldetik egin zena.

**— Nola baloratzen duzu Ekin taldeak urte hauetan lortu duena?**

— Urte dexente pasatu da Ekinek bere lehenengo bilera

egin zuenetik. Geroztik garrantzitsuena da Ekinek gaur egun antolatzen duen guztia herrian normaltasunez hartzen dela. Herrian ezaguna da Ekinek egiten duen lana. Baina egia esan, talde moduan ez dugu hedapen handiegirik izan. Garrantzitsuena da gure euskalduntasunaz jabetzea.

**— Zein da bi urte hauetarako zure erronka?**

— Azken urte hauetan auzoetako ekintzak asko bultzatu ditugu. Niri ikaragarri gustatuko litzaidake auzoetako mugimendua erabat bideratzea. Baina oso lan zaila da. Ez da epe laburreko zerbait. Auzoetan emakumeen prestakuntza eta euskararen erabilera bultzatzeaz gain, auzoetako emakumeek beren ingurunean partehartzea izatea nahi dugu, emakumeen arteko harremanak erraztea. Auzoetan lan handia dugu egiteko. ■

**“Ama da familiari transmititzen  
zaionaren eragile nagusia.  
Horregatik oso garrantzitsua da  
emakumea euskalduntzea”**

**LAN ESKAINTZA**

Udaletxeak lan-poltsa hau osatzeko deia egiten du:

**ITURGIN OFIZIALEN LAN POLTSA**

**Oinarriak:** Udaletxean jaso daitezke.

**Eskaerak aurkezteko epea:** apirilaren 17an, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

PERSONAL SAILA

*Bigarren urteurrena*

*Juan Garai Etxebeste*

**Irrifar batez  
guri begira  
izango zara beti.  
Ez zaitugu ahaztuko.**



# Shot grabaketa estudioa: hiru urte diskogintzan

1995. urteak krisialdiaren urte-  
en amaiera zekarren. Lana  
aurkitzea ez zen samurra.  
Baziren hiru lagun gustatzen  
zitzaiena egiten bizi nahi zute-  
nak. Lana eta zaletasuna uztar-  
tzeko asmoa zuten.

Pello Aldabek, Iñaki Ben-  
goak eta Josu Izkuek zerbait  
egin nahi zuten musikaren  
inguruan, musika beren ogi-  
bide bilakatu. Horrela sortu  
zen *Shot Grabaketa Estu-  
dioa*.

Dagoeneko hiru urte iga-  
ro dira eta *Shot*-eko estudio-  
etatik makina bat talde pasa-  
tu dira diskoak grabatzera.  
Horietariko asko ezagunak  
dira: Oskorri, Ruper Ordori-  
ka, Etsaiak, All Nighters. Bes-  
te batzuk lehenengo lanak  
grabatzen dituzten Arrasate-  
ko taldeak dira: Bad F Line,  
Iskanbila, Ekon, El Desván del  
Macho... *Rip Versiones* ere  
Shot-ek atera zuen. Azken  
lana egin berria dago: Daisy  
Cutters taldearen diskoa.

Pello Aldabek hiru urte



Shot grabaketa estudioan makina bat disko grabatu da.

hauen balantze ona egiten du:  
"lehenengo urtea izan zen  
gogorra. Iaz gauzak oso  
ongi joan zitzaizkigun eta aur-


ten gogor lan egin beharra dau-  
kagu".

Pelloc uste du musikaren  
egoera dexente aldatu dela


azken urteotan. Estudioan lan  
egiteak musikaren ikuspegi  
zabala izateko aukera eskain-  
tzen du, dudarik gabe. Eser-  
leku horretatik egoera berria  
ikusten du Pelloc.

Orain taldeak ugari dira.  
Pelloc dioenez "gaur egun  
edozein gaztek du gitarra,  
gurasoek oparitzen dietelako.  
Hamar urte atzerago, hau ez  
zen horrela. Musikan ibiltzea  
zailagoa zen. Gaur egun tal-  
de askoz gehiago daude". Hau  
ona da Shot estudioarentzat,  
lan gehiago dute eta. Baina  
kalitateak huts egiten duela  
dio Pelloc. Orain egiten den  
musikan sentimendua falta  
dela dio, "lehen hitzek eska-  
kizun bat zuten, protesta egi-  
ten zen kantuekin; gaur egun  
oso gutxi dira musikan kon-  
promezua hartzen dute tal-  
deak".

Batzuek diote pasatako  
urteak bezalakorik ez dagoe-  
la. Musikan ere, beste horren-  
beste gertatuko ote da?



## Liburu joste ikastaroa



- Apirilaren 21etik  
ekainaren 2ra arte (7saio).
- Arratsaldeko 6:00etatik-8:00etara  
EKIN elkartearen egoitzan (Pablo Uranga, 4)
- Matrikula:  
Bazkideak: 4.500 pta.  
Bazkide ez direnak: 5.000 pta.

- Izen-ematea:  
– 77 12 28 telefonoan arratsaldez  
(Onintzaz galdetu)  
– AEDren bulegoan.

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Emakume Saila  
ARRASATEKO UDALA



IGOR ELORTZA, 7 ESKALE TALDEKO KIDEA

## 7 Eskalek drogak kantugai “Barrenkaleko Bluesak” diskoan

Bi bertsolari gazte, Igor Elortza eta Unai Iturriaga eta Euskal Herriko musikari mitiko bat, Josu Zabala, elkartu eta esperimentu bitxi bat egin zuten: bertsoak eta folk musika elkartu. Lau urte geroago 7 Eskale taldeak bere jardunarekin segitzen du. Ostegunean Arrasaten izan ziren, Aste Gaztek gonbidatuta. Guk Igor Elortzarekin izan genuen solasaldia :

### — Zerk batzen ditu 7 Eskale?

— Orain dela lau edo bost urte bertsoak eta musika elkartzeko gogoak bildu gintuen. Unai, Josu eta hirurok bertso jarriak musikaz lagunduta eskaintzeko enkargua jaso genuen. Istorio hura azkenean formato rockero batean eskaintako emaitza bihurtu zen. Bertsoei beste esparru bat zabaldu nahi genien. Ikuskizun moduan aurkezteko gogo geneukan, eta hementxe gaude orain.

— Azkenaldian badirudi euskal musika sustraletara bueltatzen ari dela: triki-punk delakoa, Hiru Truku, trikitixaren inguruko talde guztiak, zuek bertsoekin...

— Bai, halaxe da. Euskal musikan aldaketak bizi dira. Beste gauza batzuk entzuteko gogo dago. Gauza berriak egin nahi dira, eta zera horretan, kokatzen da atzera begiratzeko joera hau. Niri primeran iruditzen zait, oso gogoko dut eta gainera ondo deritzot. Hiru Truku taldekoek adibidez, abesti zoragarriak berreskuratu dituzte.

— Zer dauka 7 Eskalek jendeari kontatzeko?

— Beno, nik neure barruan badauzkat gauzak esateko. Musikak munduaren ikuspuntu bat emateko balio du. Musika musika moduan bere horretan bakarrik izan daiteke oso ona, baina nik



nahiago dut zerbait kontatzeko duenean. Mezua dagoenean, musika gogokoago dut.

— “Barrenkaleko Bluesak” azken lanean, hitzek eta hotsek droga dute gai nagusi.

— Bai, drogen eremua hartu eta hor barruan dagoena historia moduan kontatu dugu. Film baten erara egiten ahalegindu gara. Hasierako ideia film banda baten antzekoa egitea izan zen.

Drogen egunerokotasuna islatu nahi izan dugu.

— Erabilitako tresneria nahiko bitxia da, ez?

— Bai, Josu Zabalak argi zeukan hasieratik gitarrarik gabeko talde bat egin nahi zuela, eta hala egin dugu. biolinak, perkusioa, kontrabaxua eta akordeoia erabili ditugu. Erritmo ezberdinak landu nahi genituen. Droga bati lotuta dagoen kanta bakoitzari erritmo bat erantsi zaio; bakailoa bati, saltsa besteari, zortzikoa, fandangoa, denetarik dago.

“Musikak munduaren ikuspuntu bat emateko balio du”

## aste gazte

### ■ BEKAK

• EHU-UPVk urtero lez antolatzen dituen Udako Unibertsitaterako eta Europar ikastaroetarako bekak eskatzeko epea: apirilak 8.

• Erresuma Batuan, Irlandan eta Frantzia hizkuntza ikastaroak egiteko dirulaguntzak jasotzeko aukera, 19 urtetik beherako ikasleentzat eta aurrez deialdi orokorrean dirulaguntza jaso dutenentzat. Epea: apirilak 15.

### ■ UDALEKUAK

• 7-13 urte arteko neska-mutilentzat Diputazioak antolatutako kanpainarako aurreinskripzio epea: martxoaren 31tik apirilaren 21era arte.

### ■ UDA ABENTURA

• 14-17 urte duten gazteentzako kirol abentura. Kanpainan parte hartzea nahi dutenentzat aurreinskripzio epea: apirilaren 12tik 26ra bitartean.

### ■ AUZOLANDEGIAK

• Diputazioak antolatutako programara, 15-30 urte bitartekoei zuzendua, Euskal Herrian, Espainian edo atzerrian lan egiteko aukera. Aurreinskripzio epea: apirilaren 3tik 24ra.

### ■ GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA

• Euskadiko herri erakundeek eta gobernuz kanpoko elkarteek Hirugarren Munduko herrietan antolatzen dituzten lankidetzak jardueretan parte hartzeko aukera duzu. Epea: apirilak 17.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Astigarragan etxebizitza berriztua salgai. Tel.: 33 12 20. Gema.

• Etxebizitza salgai, soto eta guzti. Tel.: 79 22 57. Denda orduetan, berriz, 79 15 96.

• Musakolako Maixu Aranbarrin 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea 3 logela, egongela eta bainugela. Gas naturala. Guztiz eguzkitsua. Tel.: 79 15 20

### 2. Erosi

• Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke, 60 m<sup>2</sup> ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

### 3. Errentan emateko

• Aramaion plaza ondoan dagoen etxebizitza alokatzen da. Tel.: 79 60 88.

• Etxebizitza alokatzen da San Joan auzoan. 1. Pisua. 3 logela eta egongela. berogailua ere badauka. Tel.: 79 77 13.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza txikia, atiko edo teilatupea alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gaeuz.

### 5. Etxe konpartituak

• Lagun bat behar da Eskola ondoko etxebizitza osatzeko. Tel.: 77 08 44.

• Gela merke baten bila nabil. Tel.: 908-57 64 86. Josean.

• Lagun bat behar da Makatzenan etxebizitza osatzeko. Tel.: 970 59 73 62. Dei egin 20:30etatik 23:30etara edo mezua utzi.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

• Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea salgai Roneoko etxeetan. 1. solairuan, garaje itxia. Tel.: 79 18 70

### 9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gaeuz.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• San Andresen frutadenda eskualdatzen da. Tel.: 79 72 91. Gaueko 21:30etatik aurrera. Matilde.

• Bergarako Bolu kalean lau gelako bulegoa alokagai (Osorik edo gelaka). Tel.: 76 58 91.

• Izarra dorrean 110 m<sup>2</sup>ko tokia alokagai. Tel.: 79 25 26.

• San Joan hotel berrititik gertu eta leku onean 62 m<sup>2</sup>ko tokia alokagai. Edozein kontsultarako aproposa. Tel.: 79 18 95.

• Ileapaindegi batek tokia alokatzen du Esteticien batentzat. Ileapaindegi Makatzenan dago, 10. zenbakian. Ibaie ileapaindegia da. Tel.: 76 69 15.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuk toki baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek toki bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

• Etxabe komertziala Okendo kalean, 1, 73 m<sup>2</sup>, komuna, argindarra eta ura dauka. Baita 4-6 metroko erakusleihoa izateko aukera ere. Tel.: 79 11 99

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 37 80. Eguedietan.

• Neska gertu umeak zaindu edo kama- rero lanak egiteko. Tel.: 79 57 64.

• Emakume euskalduna gertu etxe- ko lanak egin eta umeak edo per- tsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska euskaldu- na denda batean lan egiteko gertu. Tel.: 79 81 16. Estibaliz.

• Neska arduratsua gertu dago ordu- ka garbiketarako egiteko eta umeak zain- zeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

• Esperientziadun neska eskaintzen da zerbitzari lanetan aritzeko. Tel.: 79 36 49.

### 18. Eskaerak

• Zerbitzari gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

• Garraiolari laguntzaile lanetarako mutil arrasatearra behar da. Tel.: 907 70 20 46.

• Zerbitzari euskalduna eta esperi- entziaduna behar da. Tel.: 79 24 58.

• Asteburuetarako zerbitzaria behar da jangelan zerbitzeko. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da taberna bate- ko sukaldean lan egiteko. Tel.: 79 00 34.

• *Esuskaldunon Egunakaria* Arrasaten banatzeko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eta autoa edukitzea beharrezkoa da. Tel.: 79 75 58. Juli. Arratsaldez.

• Zarugalde 50ean 20-45 urte arte- ko emakumea behar da dendan lan egiteko. Interesatuak iluntzeko 19:00 etatik 20:00etara pasa bertatik. Tel.: 77 13 91

• Lagun euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egi- teko. Tel.: 79 56 30. Gaeuz deitu.

### 19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko nes-

ka bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Enkarguzko margolanak (kuadroak) egiten ditut. Informazio gehiagoko 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Psikologoa, lehen hezkuntzako era guztietako laguntza eskola emateko gertu. Tel.: 77 17 02.

• Lizentziatu eta Pariseko Sorbonan ikasia, frantsesezko eskolak emateko prest. Edozein ordutan, komeni zailen lekuan. Tel.: 79 06 15. Iban.

### 21. Eskaerak

• Frantses eskolak hartuko nituzke. Tel.: 78 08 24. Deitu 20:00etatik aurrera. Maite.

• 2. LOGSEko ikasle bati matematika eskolak emateko irakaslea behar dugu. Tel.: 79 44 11. Anastosio edo Pura.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Super 5 Turboa salgai. Egoera ona. Tel.: 76 56 55 edo 79 75 11. Juan Luis.

• Seat Ibiza autoa salgai prezio interesgarrian. Tel.: 79 59 62.

• Kawasaki Vulkan 500 cc. motorra salgai. Egoera onean, merkea eta seguruarekin. Deitu eguerdian (1:00etik 2:00etara) eta gauean (9:00etatik 10:etara) Tel.: 79 66 27

## DENETARIK

### 26. Saldu

• 10 x 3,5 Movil home-a salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea eta jangela. Oso egoera onean. Tel.: 79 89 86. Gauze.

• Trial Sin-erako bizikleta gorria salgia. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 96 31.

• Sehaska salgai. Zuriz lakatua, egoera onean. Deitu gauze. Merkea. Tel.: 79 86 86.

• Antzinako barko ohea salgai, koltoia eta guzti (1,20 m zabalera eta 2 m luzera). Tel.: 79 63 16. (Luis).

• Antzinako gaumahaia salgai. Tel.: 79 63 16. (Luis).

• Trabesiako eski ekipoa salgai: Eskiak-Kastle, 1,70 m; fijazioak Silverretta; botak Koflach 40/41; aihotzak; larruak; elur bisutserako betaurrekoak. Tel.: 79 63 16. (Luis).

• Gitarra baten anplifikadorea salgai. Yamaha modeloa. 25 watio. Tel.: 79 72 76. (Angel.)

• Mendiko bizikleta salgai. 10.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Audi 80 autoa salgai. 1.8E. Tel.: 79 82 06.

• R5 SS-U matrikulako autoa salgai. ITV99ko otsailera arte. 150.000 pta. Tel.: 79 27 13.

• Epson markako inprimagailua salgai. Oso egoera onean. Tel.: 71 50 72.

• Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modeloa. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko kafe errotaxoa erosi nuke. Tel.: 79 23 58.

### 29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa oparituko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

### 31. Galdu

• Pablo Uranga kalean motxila bat topatu baduzu, deitu mesedez. Tel.: 77 05 21

• Betaurrekoak galdu ditut San Andresetik Arrasate Musikalerainoko bidean. Topatu badituzu deitu, mesedez. Tel.: 77 03 69. (Ruben).

### 32. Aurkitu

• Opari bat aurkitu nuen otsailaren 19an Garibai etorbideko telefono kabinan. Tel.: 77 11 68. Jon.

### 35. Harremanak

• Euskadi Gazteko makrojairako gonbita baduzu elkarrekin joan gaitetzke. Tel.: 79 79 83. Susana.



**ZUZEN-ZUZENEAN  
FABRIKATIK  
ZURE ETXERA**



Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

# Gazte ikastaroak



## Argazkigintza

- ASA elkartearekin elkarlanean
- Hastapen maila
- Apirilak 25 - ekainak 6
- Larunbatetan, 10:30 - 13:30
- Matrikula: 5.000 PTA  
(3.000 ikasle eta langab.)



## Irrati tailek

- Arrasate Irratiarekin elkarlanean
- Irrati kontrola
- Apirilak 25 - ekainak 13
- Larunbatetan, 16:00 - 18:30
- Matrikula: 4.000 PTA  
(2.000 ikasle eta langab.)

Plaza mugatuak  
Izena emateak:  
Gazte Bulegoan (77 00 65)



# Maixa eta Ixiar trikitilariak Kaleidoskopioa saioan

Astearte honetan *Kaleidoskopioa* saioa izango dugu ikusgai Arrasate Telebis-tan. Saioa lau gaztek egiten dute: Maria Agirrek, Unai Iparragirrek, Aitziber Langaranek eta Oihana Altunak eta gazte jendeari dago zuzendua.

*Kaleidoskopioan* euskal kulturako hainbat pertsonaiari egiten zaie elkarrizketa. Orain arte Bad F Line taldeko partaideak, Goenkale teleaileko bi aktore, Asier Altuna zine zuzendaria eta Anari abeslaria etorri dira.

Asteartean Maixa eta Ixiar trikitilariak hurbilduko dira Arrasateraino *Kaleidoskopioan* parte hartzera.

Elkarrizketaz gain, ohi-ko txokoak ere izango dira: literaturaren txokoan Aste Santutan irakurtzeko liburuak interesgarriak gomen-



*Kaleidoskopio* kultura saioko aurkezleak.

datuko dizkigute.

Zinea ez da saioan falta-ko. Azken estrenaldiak eza-gutu nahi duenak *Kaleidoskopioan* guztiaren berri izan-ko du.

Ikusleek partehartzeko

aukera izango dute. Zinera-ko bi sarrera zozkatuko dira.

Asteartean *Kaleidoskopioa* saioan Maixa eta Ixiar trikitilarien inguruko txu-txumutxuak kontatuko diz- kigute.

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### LARUNBATA

9:00 **Albistegia**

9:30 **Musika**

10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako pro-grama. Maider Errarte eta Belen Aran-barrerekin.

11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika kla-sikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olai-zola eta Eusebio Iñarrarekin.

12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Albistegia**

9:30-11:00 **Goizoro**

14:30-16:00 **Bixau orduan**

### GAUEZ

#### Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

#### Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Ara-na, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

#### Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginiko magazina.

#### Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderek.

#### Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.

23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

## ■ ATBko programazioa

| LARUNBATA, 4  | ASTELEHENA, 6  | ASTEARTEA, 7  | ASTEAZKENA, 8  | OSTEGUNA, 9     | OSTIRALA, 10    |
|---|--|---|--|-----------------|-----------------|
| Astean zehar eskai-nitako saiorik inter-esgarrienen erre-pika.  | 13:30 <b>Astebete</b> . (Errepika)   | 13:30 <b>Mondrasport</b> . (Errepika)   | 13:30 <b>Lotsa Barik</b> . (Errepika)  | <b>Oporrak.</b> | <b>Oporrak.</b> |
| 13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)   | 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>  | 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>   | 20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>  |                 |                 |
| 14:15 <b>Astebete</b>   | 21:30 <b>Mondrasport</b> . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren erre-paso zabala, Zal-dibarko futbito txapelketa, gonbida-tuak eta Arrasate Kirolak lehiaketa. | 21:30 <b>Kaleidosko-pioa</b> . Unai Iparrag-irre eta Aitziber Langaran. Gonbi-datua: Maixa eta Ixiar. | 21:30 <b>Tertulixan</b> . <i>Ina-zio Olaizola</i> . Ina-zioek eta bere gon-bidatuek Aste San-tua, autopista eta beste gai orokor batzuk izango dituzte aztergai. |                 |                 |
| 14:45 <b>Munduari Buel-taka</b> . <i>Elene Alberdi</i> . (Errepika) Mexi-ko, Guatemala eta Belize BTT-an. |  |   |  |                 |                 |



**E**gun eguzki-  
tsuek alaita-  
sun berezia  
ematen dute.  
Eguerdi  
aldera lagunekin geratu eta  
herrian gora eta behera  
ibiltzeko abagune aproposa.  
Argazkiko koadrilak horixe  
bera egin zuen

1942. urteko egun  
eguzkitsua aprobetxatuta.  
Argazkia, *Etxezuri* taberna-  
ren aurrealdean dago aterata,  
tren geltoki zahararen  
parean. Gazte dotore hauek,  
sarritan ibiltzen ziren  
elkarrekin, nahiz eta *koadri-  
la ofizial* desberdinetakoak  
izan.

Zutik, Jose Maria Uriarte  
*Polvora*, Floren Mujika,  
Felix Ajuria, Imanol Arizaga  
*Txanbolin* eta Antonio  
Gonzalez *Txiki*.

Makurtuta: Jose Ignacio  
Velez de Mendizabal,  
Imanol Mujika *Legarre*,  
Felix Arana *Txutxo* eta Juan  
Herrero.

Lurrean erdi etzanda:  
Raimundo Velez de Mendi-  
zabal eta Gregorio Arregi  
*Txindarro*.

Argazkia:  
Raimundo Velez  
de Mendizabal

**FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROA**

97-98 3. hiruhilabeteko kurtsoa


**Hasiera:**  
apirilaren 20an.

**Matrikula epea:**  
apirilaren 8ra arte


Tel.: 79 04 59 • Sta. Teresa, 12


**Kurtsoak:**

- B.E.Z eta I.R.P.F. ikastaroak.
- Liburu jostea eta paperez egindako lanak.
- Enmarkazioa.
- Udarako sukaldaritza.
- Ingelesko I. maila.
- Lasaitzeko masajea.
- Psikologia.



famili eta gizarte-  
hezkuntzarako zentruak  
centros de formación  
familiar y social





## Think Pink,

izen handiko marka mundu osoan, hiru arrazoiengatik: kalitatea, diseinu italiarra eta izadiarekiko errespetua

## Arrasate Kirolak,

Think Pink markaren banatzaile ofizial eta bakarra. Think Pink eta Arrasate Kirolak konfiantzazko taldea.



**ARRASATE**  
**KIROLAK**

Kontzezino, 8  
Tel.: 79 46 12  
ARRASATE


# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK

**LOGELATAN  
maisuak**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, egongela eta osagarriak errazago topatzeko saltokia. 48 urteko esperientzia. Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

**ARRASATE**